

**ДЦЯРЯД**  
**LANGILERIA**

**BAKE FALTSUARI GERRA**

**GRAMSCI-REN BORROKA**  
**BORDIGISMOAREN AURKA**



*2021eko apirila, Euskal Herria*

## AURKIBIDEA

LEHEN URTEAK.....	3
LANTEGI-BATZORDEAK ETA SOBIET-AK.....	4
HAUTESKUNDEEN INGURUKO KOKAPENA.....	8
LANGILERIAREN FRONTE BAKARRA.....	13
BORROKA ANTIFAXISTA.....	16
TAKTIKA IRAULTZAILEA FAXISMOPEAN.....	19
PCI «BOLTXE BIZATZEAREN» ALDEKO BORROKA.....	24
MARXISTA-LENINISTEN GARAIPENA LYON-EN.....	30
TROTSKISMOAREKIKO JARRERA.....	35
GRAMSCI-REN ONDAREA ETA BORDIGISMOAREN KOROKAK.....	40

## LEHEN URTEAK

Antonio Gramsci, militante eta buruzagi komunista ospetsua izango zena, Sardiniako uhartean jaio zen 1891an. Bere familia oso txiroa zen eta umetan lan egin behar izan zuen, ikasketekin batera egiten zuena, oso baldintza kaxkarretan. Txikitatik hainbat gaixotasun pairatu zituen (behar adina haztea galarazi zion bizkarrezurreko gaitza barne), oso larriak izan ez baziren ere. 1911ean beka bat lortu zuen Turineko unibertsitatean ikasi ahal izateko. Han gaztaroko sardiniar independentismoa alboratu eta Italiako Alderdi Sozialistan (PSI) sartu zen 1913an.

1914. urtean lehen aldiz egin zion aurre Benito Mussolini-ri, orduan PSiko kide zena, 'Neutralitate aktibo eta eraginkorra' artikuluan: PSI II. Internazionallean bazegoen ere, I. Mundu Gerrate interperialistan kokapen neutroa hartu zuen. Mussolini-k, aldiz, burgesia inperialistaren aldean ipinitako oportunisten kokapena defendatu zuen, hots, gudan sartzea. Honen aurrean, Gramsci-k neutralitate hori iraultza proletarioan bihurtzea babestu zuen.

Turin oso hiri industrializatua zen (FIAT lantegiak eta abar.) eta bertan zegoen Italiako behargin-klaserik borrokariena. 1917an Errusiako iraultzaren oihartzuna Turinera iritsi zen, eta gerra eta gosearen aurkako enegarren grebari langileriaren altxamendu armatua gehitu zitzaion. Tamalez, ez zen beste hirietara hedatu eta militarki setiatuta egon ostean langileek amore eman behar izan zuten. Matxinadak porrot egin eta gero buruzagi sozialistak masan atxilotu zituzten eta Gramsci hiri honetako PSiko idazkari izendatu zuten.

Gramsci-k lehen unetik babestu zituen Lenin eta Urriko iraultza sobietikoa, baina azken hau aztertzerakoan joera idealistako akatsak egin zituen, aurrerago gaindituko zituenak. Hau 'Iraultza Kapitala-ren aurka' artikuluan ikusi daiteke, adibidez, non boltxebikeak eta marxismoa kontrajartzen dituen (Benedetto Croce filosofo burgesaren eraginez gehienbat, baina baita sozialdemokraziak honetan sartutako desitxuraketen ondorioz). Halere, Sozialismoaren eraikuntzaren eta iraultzan eman beharreko faseen inguruko ikuspegi zuzena adierazten zuen.

1919an, guda amaitu eta gero, Gramsci-k 'L'Ordine Nuovo' aldizkaria argitaratu zuen beste kide batzuekin batera (Togliatti, Tasca, Terracini...), behargin-mugimenduan arrakasta handia izan zuenak (hitzaldiak ematera eta guzti gonbidatzen zituzten). Honek lantegi-batzordeen mugimenduari bultzada handia eman zion, 'lantegi-batzordeen aldizkaria' izendapena irabaziz.

## LANTEGI-BATZORDEAK ETA SOBIET-AK

1919. urtean III. Internazionale (Nazioarteko Komunista edo ‘Komintern’) sortu zen Errepublika sobietikoan. PSI-k berrikuskeriak usteldutako II. Internazionale utzi eta Komintern-ean sartzea erabaki zuen. Honen aurrean, Gramsci-k ‘sobiet’-etan (behargin, nekazari eta soldaduen bilerak) oinarritutako proletalgoaren diktaduraren defentsa egin zuen LONen:

*“Gobernu berri hau proletalgo industrialaren eta nekazari txiroen diktadura da, klase esplotatzaileak sistematikoki ezabatzeko eta desjabetzeko tresna izan behar duena. Estatu proletario-mota ez da demokrazia burges faltsua, menderatze oligarkiko finantzarioaren forma hipokrita, baizik eta demokrazia proletarioa, masa langileen askatasuna gauzatuko duena; ez parlamentarismoa, baizik eta masen autogobernua beren hautapen-atal propioen bitartez; ez karrerako burokrazia, baizik eta masek berek sortutako kudeaketa-atalak, masen benetako parte hartzearekin herrialdearen administrazioan eta eraikuntza-lan sozialistan. Estatu proletarioaren forma zehatza kontseiluen eta antzeko erakundeen boterea da.”*

*Nazioarteko Komunista (1919) – Gramsci*

Baina LONi benetako arrakasta eman zionak Togliatti-rekin batera idatzitako ‘Behargin-demokrazia’ artikulua argitaratzea izan zen, non argi eta garbi azaldu ziren lantegi-batzordeen ideiarekin alde: hauek langileek aukeratutako ordezkariak osatutako batzordeak ziren, lantoki edo enpresaren zuzendaritzari (jada oligarkia finantzariaren edo Kapital monopolistaren ordezkari gisa) kontrajartzen ziotenak. Gainera nekazarien eta auzo-mailako batzordeekin batera irudikatzen zituzten, sobiet-en forma partikular gisa Italiako egoeran.

*“Gaurdanik jada beharginek lankide onenen eta kontzienteenen artean aukeratutako ordezkarien bilera zabalak hautatu beharko lituzkete, «Lantegiko botere osoa lantegi-batzordeei» kontsignaren inguruan, beste honekin koordinatuta: «Estatuaren botere osoa behargin eta nekazarien kontseiluei». (...) «Proletalgoaren diktadura» formula hutsa, fraseologia iraultzailearekin itotzeko aukera bat, izateari utzi behar dio. Helburua nahi duenak bitartekoak ere nahi izan behar ditu. Proletalgoaren diktadura Estatu berri baten ezarpena da, bereziki proletarioa, zeinetan behargin-klasearen esperientzia instituzionalak elkartzeko diren, zeinetan behargin- eta nekazari-klasearen bizitza soziala sistema orokor eta irmoki antolatutakoa bilakatuko den.”*

*Behargin-demokrazia (1919) – Gramsci*

Alderdia, langileriaren parte kontziente eta diziplinatua barnebiltzen zuena, mugimendu honen zuzendaritzan kokatu behar zen izaera iraultzailea eman ahal izateko. Horregatik garatu behar ziren beste mota askotariko erakundeak herri langile osoa barnebilatu eta antolatuko zituztenak.

*“Beharrezkoa da jada existitzen diren lantegiko instituzio proletarioei garapen handiagoa eta botere gehiago ematea, eta herrietan antzeko instituzioak ager daitezen bultzatzea, horiek osatzen dituzten gizakiak erakunde horiek bete beharreko egiteko iraultzaileak kontziente diren komunistak izan daitezen lortzea. Bestela, gure suhertasun guztiak, masa langileen fede guztiak ez du lortuko eragozten iraultza nahastaile, iskanbilatsu, ergel eta arduragabeen Parlamentu berri batean*

*doilorki erortzea, eta beraz sakrifizio berri eta ikaragarriagoak beharrezkoak izatea proletarioen Estatua heltzeko.”*

*Estatuaren erdiespena (1919) – Gramsci*

PSIren gehiengo sozialdemokrata lantegi-batzordeen kontra zegoen. Baina oposizioa ez zetorren soilik eskuinetik. Amadeo Bordiga, PSIren barneko “frakzio abstentzionistaren” (hauteskunderen aurrean zuten jarrera zela eta) burua, hauen aurka agertu zen eta LONen ildoak kritikatu zuen. Aipatu beharra dago Liebknecht eta Luxemburg-en erailketaren harirria “erlijio guztiek martiriak behar zituztela” eta “sozialismoa aro berriko erlijioa zela” idatzi zuela, bere bizitza osoan zehar defendatu zituen marxismoz mozorrotutako ikuskera mistikoen adierazle dena.

Bere ikuspuntu dogmatikotik, bakarrik sobiet-ak izan zitezkeen proletalgoaren diktaduraren forma politikoa, Errusian hala zelako. Gainera, hauek lurralde-mailan soilik antolatu beharko lirateke, Errusian ere ekoizpen-oinarria zuten sobiet-ak batzorde orokorrean gainordezkatuak zeudela (hots, pisu handiagoa zutela) alboratuz. Honela izkutatu egiten zuen Estatu sozialistaren oinarria azken hauek zirela.

*“Hiriko eta barrutiko (landa-eremuan) goi-mailako hierarkian, ordezkariak eman behar zaie hiri-edo barruti-kontseiluari, bai eta ekoizpen-guneei ere, hau da, hala nola masa langileari, alderdiaren sailei, zirkuluei, sindikatuei, elkarte proletarioei, kooperatibei. Gehiengo sozialista nabarmena izango litzateke tokiko botere hauetan, eta izugarria hiri industrial handietan, non behargin-Estatua benetan den diktadura proletarioa (lantegietako beharginena) eta zailtasun handienak gainditzen dituen, gune kapitalistez jabetzen delako, nazio osoan zehar beren garroak inarrostean dituzten erakunde kapitalistez.”*

*Boterearen arazoa (1919) – Gramsci*

Bordiga-ren ustez Alderdi Komunistak sobiet-ak (edo kontseiluak) aldebakarki sortu behar zituen eta soilik matxinada armatua prestatzeko helburuaz (hitzez, behintzat). Beste hitzetan, kontseiluak Alderdiaren luzapena ziren, eta ez subjektu iraultzailea osatzen zuten herri langilearen geruzek osatutako botere berriaren oinarria, non Alderdiak gehiengoaren babesa irabazi behar zuen.

Gramsci-k, Bordiga-ren sektakeriaren eta taktikaren zurruntasunaren (edo taktika ezaren) aurrean, lantegi-batzordeak sobiet politikoaren beharra azaleratzeko iragate-forma gisa ikusten zituen.

*“Horregatik, Sobiet politiko komunisten eraikuntza historikoki lantegiko Kontseiluen loraldi eta lehen antolaketa baten ondoren izan behar du. Lantegiko kontseiluak eta lantegiko kontseiluen sistemak, lehenik eta behin, behargin-klaseak ekoizpenaren arloan betetzen dituen kokapen berriak entseatu eta erakusten dituzte; behargin-klaseari bere egungo balioaren, bere benetako funtzioaren, bere erantzukizunaren, bere etorkizunaren kontzientzia ematen diote. Behargin-klaseak norbanako ezberdinek pertsonalki egindako esperientzia positiboen batuketaren ondorioak ateratzen ditu, klase menderatzailearen psikologia eta izaera hartzen ditu eta hala antolatzen da, hau da, Sobiet politikoa sortzen du, bere diktadura ezartzen du.”*

*Lanaren bitartekoa (1920) – Gramsci*

Azkenik, Bordiga-k LONeko kideak “erreformismoz”, “sindikalismoz” edota “proudhonismoz” (!) salatu zituen proletalgoaren diktadura baztertu eta lantegi-batzordeak kapitalismoa kudeatzeko erabili nahi omen izateagatik. Kontuan izan behar da Bordiga-rentzat langileria soilik Alderdi Komunistan antolatzen zen heinean existitzen zela, hau klasearen “sintesi” bat izanik. Hau da, langileria soilik Alderdian antolatuta zegoena izango litzateke, edozein klasekoa izanik ere, eta honetatik kanpo ez zen existitzen. Honela behargin-klasearen izate sozial objektiboa ukatzen zuen, langile aristokraziaren desbideratze ideologiko nabaria dena.

Gramsci-rentzat, ordea, lantegi-batzordeen abantailetakoa bat sindikatuen aurrean zen lehenek lantokiko langile guztiak barnebiltzen zituztela, sindikatueta gutxiengo bat antolatzen zen bitartean. Bere izaera beragatik ere botere-talka sustatzeko joera zuten, sindikatuak negoziatziorako antolakundeak ziren bitartean. Horregatik haien artean mugimendu iraultzailea elikatuko zuen harreman bat ezarri behar zen, Alderdiak gidatutakoa.

*“Kontseilua legalitate industrialaren ukapena da, uneoro baliogabetzeko joera du, nahitaez behargin-klasea industria-boterea erdiestera eramateko, behargin-klasea industria-boterearen iturri bihurtzeko joera du. Sindikatua legalitatearen elementu bat da, eta bere kideek errespetatu dezaten izan behar du helburutzat. Sindikatua industrialen aurrean da erantzule, baina erantzule da industrialen aurrean bere kideen aurrean erantzule den heinean: lanaren eta soldataren jarraipena bermatzen dio, hau da, ogia eta sabaia, beharginari eta bere familiari. Kontseiluak, bere bat-batekotasun iraultzaileagatik, klaseen arteko gerra piztera jotzen du uneoro; sindikatuak, bere egitura burokratikoagatik, klaseen arteko gerra inoiz ez piztera jotzen du. Bi erakundeen arteko harremanek egoera bat sortzera jo behar dute, zeinetan ez den gertatu behar kontseiluaren bultzada apertatsu batek behargin-klasearen atzerantzko urratsa ezartzea, haren desantolaketa zehaztea, kontseiluak sindikatuaren diziplina onartu eta bere egiteko egoera bat ezartzea; eta zeinetan kontseiluaren izaera iraultzaileak sindikatuarengan eragina izango duen, burokrazia eta sindikatuen funtzionamendua desegingo duen errektiboa izango den.”*

*Sindikatuak eta Kontseiluak (1920) – Gramsci*

1919ko amaieran lantegi-batzordeak sortzen hasi ziren Turineko hainbat lantokietan eta hilabete batzuen buruan guztietara hedatu ziren. Sindikatu gehienek ere onartu zuten haien aldarrikapena (metalurgialariak bereziki). 1920an lantegi-batzordeek, sindikalisten eta anarkisten aurkaritza arren, greba orokor iraultzailea hasi zuten Turinen, baina ez zen Piamonteko eskualdetik haratago hedatu. PSIko Biltzarre Nazionalea han egin behar zen baina egoera zela eta Milanera aldatu zuten, non kontseiluak proletalgoaren botere politikoa bilakatzeko formen inguruan eztabaidatu zuten, burgesiak jada Turinen lortutakoa suntsitzea uzten zuten bitartean.

LONeko kideek lantegietan Alderdiaren zelulak sortzea proposatu zioten PSIko zuzendaritzari, arbuiatu egin zuenak hau sindikatuak ordeztzea izango zitekeenaren aitzakipean. Orduan Turineko sailaren aginduz Gramsci “frakzio abtentzionistaren” biltzarrera joan zen frakzio komunistaren sorkuntza proposatzeko, zelula eta lantegi-batzordeen printzipioetan oinarrituta. Baina han ere errefusatu zuten “antolakuntza-forma hutsak” ezgai zirela argudiatuz (hauteskunde-abstentzioaren

inguruko aldarriekin aski zen, antza). Honela lantegien okupazioak zuzendaritza iraultzarik gabe hasi ziren eta erreformistek berriro ere desbideratu ahal izan zituzten.

Komintern-aren II. Biltzarrea ere lantegi-batzordeen alde agertu zen lantegietan behargin-kontrolaren aldeko borrokak proletalgoaren diktaduraren beharra azaleratzen zuelako eta etorkizuneko ekonomia sozialistaren oinarria gisa ezartzen zituen. Are gehiago, Lenin berariaz agertu zen LONen argitaratutako proposamenen alde, amaierako tesietan onartu zena.

*“L’Ordine Nuovo-ko kideen joera, eta ez Alderdi Sozialistako buruzagien egungo gehiengoarena eta bere talde parlamentarioarena, Nazioarteko Komunistaren joerari dagokiona dela esan behar diegu italiar burkideei, besterik gabe.”*

*Nazioarteko Komunistan sartzeko baldintzei buruzko hitzaldia (1920) – Lenin*

## HAUTESKUNDEEN INGURUKO KOKAPENA

1920. urteko uztailean Komintern-aren II. Biltzarrea egin zen Moskun. Han, beste gauza batzuen artean, komunistek hauteskunde burgesen aurrean izan beharreko kokapenaren inguruan eztabaidatu zuten herrialde ezberdinetako ordezkariak. Bertan Lenin-ek ‘ “Ezkerkeriaren” haur-gaixotasuna komunismoan’ aurkeztu zuen, zeinetan Bordiga-ren “frakzio abstentzionistaren” kokapenaren inguruan esan zuen:

*“Gutxiegi izan dira Italiako “ezkerreko” komunismoa ezagutzeko izan ditudan aukerak. Zalantzarik gabe, Bordiga burkidea eta haren “komunista boikotezaille” -komunista abstentzionista- frakzioa oker daude parlamentuan parte ez hartzea defendatzean. (...) Jarrera oker, inkontsekuentea edo herabe hori parlamentari oportunistekiko, alde batetik, “ezkerreko” komunismoa sortzen du, eta, bestetik, neurri bateraino justifikatzen du haren existentzia.”*

*“Ezkerkeriaren” haur-gaixotasuna komunismoan (1920) – Lenin*

Bordiga-ren ustetan Alderdi Komunistaren sorkuntza, iraultza proletarioaren prestakuntza eta sobiet-en aldeko borroka hauteskunderi eta parlamentu burgesetan parte hartzeari uko eginez soilik eraman zitekeen aurrera, hau defendatzeko hitzontzikeria sasi-iraultzailez baliatzen zelarik. Lan honen eranskinaren 4. puntuan, Lenin-ek gehitu zuen:

*“Baina Turati eta konpainia jaunei egindako kritika zuzenetik, Bordiga burkideak eta bere lagun “ezkertiarrek” parlamentuan parte hartzea oro har kaltegarria denaren ondorio okerra ateratzen dute. Italiar “ezkertiarrek” ezin dute argudio serioen itzalik eman iritzi hori defendatzeko. Soilik ez dituzte ezagutzen (edo ahazten saiatzen dira) parlamentu burgesen erabilera benetan iraultzaile eta komunistaren nazioarteko ereduak, iraultza proletarioa prestatzeko era eztabaidaezinean mesedegarria. (...)”*

*Parlamentuan parte hartzea “ukatzearen” umekeria hau da, hain zuzen ere, metodo hain “sinple”, “erraz” eta sasi-iraultzaile horrekin “konpondu” nahi dutela behargin-mugimenduan eragin demokratiko-burgesen aurka borrokatzearen egiteko zaila, eta, egiatan, egiten duten gauza bakarra beren itzal propiotik ihes egitea da, zailtasunen aurrean begiak ixtea eta haietaz hitzekin soilik libratzea. (...)”*

*Boikotatzaile eta antiparlamentarista maiteok, “ikaragarri iraultzaileak” zaretela iruditzen zaizue, baina egiatan beldurtu egin zarete behargin-mugimenduaren baitan eragin burgesaren aurkako borrokak aurkezten dituen zailtasun erlatiboki txikiez, zuen garaipenak, hots, burgesiaren uzkaileak eta proletalgoak botere politikoa erdiesteak, zailtasun horiek berak neurri handiagoan, askoz ere handiagoan, sortuko dituen bitartean. Haurrak bezala ikaratu zarete gaur zuen aurrean altxatzen den zailtasun txikiaz, ulertu gabe bihar eta etzi, nolana ere, ikasi egin beharko duzuela, eta erabat ikasi, zailtasun berberak gainditzen, baina neurri izugarri handiagoan.*

*(...) Botere sobietikoaren pean zeregin horiek, antiparlamentariak eskukada batekin halako harrokeriaz, handikeriaz, arinkeriaz eta umekeriaz baztertzen dituenak, zeregin horiek berak sobieten barnean, administrazio sobietikoaren barnean berragertuko dira. (...)”*



*Burkide “ezkertiar” eta antiparlamentarioek ez badute orain ikasten hain txikia den zailtasun bat gainditzen, ziurtasunez esan daiteke ez direla proletalgoaren diktadura egikaritzeko moduan egongo, ezingo dituztela intelektual burgesak eta erakunde burgesak eskala zabalean menderatu eta eraldatu, edota korrika eta presaka ikasi beharko dutela, eta halako estutasunarekin kalte handia egingo diotela kausa proletarioari, ohikoa baino akats gehiago egingo dituztela, arrunta baino ahulezia eta ezgaitasun gehiago erakutsiko dutela, etab., etab.”*

*“Ezkerkeriaren” haur-gaixotasuna komunismoan (1920) – Lenin*

Ez hori bakarrik, Bordiga-ren seta ikusita, Biltzarrearen bukaeran Lenin-ek hitzaldi bat eskaini zuen bere akatsak berriro ere agerian ipiniz:

*“Bordiga burkideak, antza denez, marxista italiarren ikuspuntua defendatu nahi zuen hemen; baina, haatik, ez dio erantzun beste marxista batzuek jarduera parlamentarioaren alde emandako argudioetako bati ere.*

*Bordiga burkideak onartu du esperientzia historikoa ez dela artifizialki sortzen. Berriki esan digu borroka beste eremu batera eramán behar dela. Ez al daki, akaso, krisi iraultzaile oro krisi parlamentario batekin batera doala? Esan du, egia da, borroka beste eremu batera eramán behar dela, sobietetara. Baina Bordiga burkideak berak onartu du sobietak ezin direla artifizialki sortu. Errusiaren adibideak frogatzen du sobietak iraultza garaian edo iraultza aurretik antolatua izan daitezkeela. Kerenski-ren garaian, sobietak – sobiet mentxebikeak zehazki – inolaz ere botere proletarioaren parte ezin izateko moduan antolatu ziren. Parlamentua garapen historikoaren emaitza bat da, ezingo duguna bizitzatik ezabatu parlamentu burgesa desegiteko behar adina indartsuak izan arte. Parlamentu burgeseko kide izanda bakarrik, baldintza historiko zehatzetatik abiatuta, borrokatu daiteke gizarte eta parlamentarismo burgesaren aurka. Burgesiak borrokan erabiltzen duen baliabide bera erabili behar du proletalgoak ere, normala den bezala, helburu erabat desberdinetarako. Zuk ezin duzu esan hori honela ez denik, eta aurkaratu nahi baduzu, kolpe batez ezabatu beharko duzu munduko gertakari iraultzaile guztien esperientzia.*

*Zuk esan duzu sindikatuak ere oportunistak direla, haiek ere arrisku bat direla; baina, bestalde, esan duzu sindikatuekin salbuespen bat egin behar dela, behargin-antolakunde bat baitira. Baina hori zuzena da neurri bateraino soilik. Sindikatuetan ere oso elementu atzeratuak daude. Burgesia ttipi proletarizatuaren zati batek, behargin atzeratuak eta nekazari txikiak, elementu horiek guztiek uste dute, hain zuzen ere, parlamentuan beren interesak ordezkatuta daudela; horren aurka parlamentuan jardunez eta ekintzekin masei egia erakutsiz borrokatu behar da. Masa atzeratuak ezin dira teoriarekin konbentzitu: eskarmentua behar dute.*

*(..) Souchy burkideak, sindikalista iraultzailea dena, teoria berberak defendatu ditu, baina logika ez dago bere alde. Ez dela marxista esan du eta, horregatik, ulertzen da hori gertatzea. Baina zuk, Bordiga burkidea, marxista zarela baieztatzen baduzu, logika gehiago eskatu ahal zaizu. Parlamentua nola suntsi daitekeen jakin behar da. Zuk herrialde guztietan matxinada armatu baten bidez egin badezakezu, hori oso ondo egongo litzateke. Zuk badakizu guk, teorían ez ezik, praktikan ere erakutsi dugula Errusian parlamentu burgesa suntsitzeko borondatea. Hala ere, begi bistatik galdu duzu hori ezinezkoa dela prestakuntza luze samar bat gabe eta herrialde gehienetan ez dela*

posible oraindik Parlamentua kolpe bakar batez suntsitzea. Gure burua parlamentuan borrokatzea behartu behar dugu parlamentua suntsitzeko. Zuk zure borondate iraultzailearekin ordezkaten dituzu gizarte garaikideko klase guztien ildo politikoa zehazten duten baldintzak eta, horregatik, ahaztu egiten duzu guk, Errusian parlamentu burgesa suntsitzeko, Asanblada Konstituziogilea deitu behar izan genuela lehendabizi, gure garaipena eta gero ere. Zuk esan duzu: «Egia da errusiar iraultza Mendebaldeko Europaren baldintzekin bat ez datorren adibidea dela». Baina ez du pisuzko argudio bat ere eman hori frogatzeko. Gu demokrazia burgesaren alditik igaro ginen. Azkar igaro genuen geure burua Asanblada Konstituziogilearen hauteskundearen aldeko asaldura egitera behartuta ikusi genuen une batean. Eta geroago, behargin-klaseak jada boterea eskuratzeko aukera izan zuenean, nekazariak oraindik ere parlamentu burgesaren beharrea sinesten jarraitu zuten.

(...) Uste dut horregatik ez duzuela onartu nahi alderdi komunista berri askoren ahuleziak preseski behartzen dituela lan parlamentarioa ukatzera. Ziur nago benetan iraultzaileak diren beharginen gehiengo zabalak jarraituko gaituela eta zuen tesi antiparlamentaristaren aurka agertuko dela.”

*Parlamentarismoari buruzko hitzaldia (1920) – Lenin*

Gramsci-k, bestalde, jada 1919ean ikusi zuen parlamentu burgesa, demokrazia burgesa fase inperialistan sartuta ere eta PSI masa-alderdi bat izanik, borroka iraultzailearen alde erabili zitekeela:

“Iraultza komunista ezin da kolpe bakar batez egikaritu. Gutxiengo iraultzaile batek ere, indarkeriaz, boterea eskuratzeko lortuko balu, gutxiengo hau hurrengo egunean eraitsiko luke kapitalismoaren indar mertzenarioen kontraerasoak, gehiengo axolagabeak botere iraultzailearen lorea sarraskitzen utziko lukeelako, ustelkeriak eta urre kapitalistak kitzikatutako grina txar eta astakeria guztiak gainezkatzen utziko lituzkeelako. Beharrezkoa da, beraz, abangoardia proletarioak gehiengo axolagabe eta atzeratu hau materialki eta izpiritualki antolatzea; beharrezkoa da abangoardia proletarioak, bere metodo eta sistemekin, baldintza material eta espiritualak eragitea, non klase jabeak ezingo duen jada gizakien masa handiak modu baketsuan gobernatu, baizik eta behartuta egongo baita, alderdiak kontrolatutako eta diziplinatutako diputatu sozialisten zorroztasuna dela eta, masa zabalak ikaratzera, itsuki kolpatzera eta matxinatzea eragitera. Mota honetako helburu bat gaur egun ekintza parlamentarioaren bitartez bakarrik lor daiteke, hau da, Parlamentua geldiaraztera, diktadura burgesaren aurpegi bikoitzetik mozorro demokratikoa erauztera eta bere izugarrikeria eta itsusitasun nazkagarri osoan erakustera jotzen duen ekintza gisa ulertuta.

(...) Arrazoi iraultzaile hauengatik soilik doa italiar proletarioaren abangoardia hauteskunde-zerrendetara eta sendo ipini da merkatu parlamentarioan. Ez ilusio demokratiko batengatik, ez samurtasun erreformista batengatik: proletarioaren garaipenaren baldintzak sortzeko, kontseiluen sistema estraparlamentario eta antiparlamentarioan gorpuztutako diktadura proletarioa ezartzera zuzentzen den ahalegin iraultzailearen emaitza ona ziurtatzeko.”

*Iraultzaileak eta hauteskundeak (1919) – Gramsci*

Bordiga-ren “gehiengoaren fetitxismoaren” inguruko alarau sektarioen aurrean, behargin-klasearen abangoardia-Alderdia langileriaren gutxiengo bat dela edo kapitalismoan herri langile osoak kontzientzia iraultzailea bereganatu ezin duela aitzakiat hartuta honen gehiengoaren babes irabaztea errefusatzeko zuenak, Gramsci-k hauteskundeak masa zabalak erakarri eta programa komunista ezagutzera emateko baliabide bezala ikusten zituen.

Honek ez du esan nahi Gramsci-rentzat jardura parlamentaria mugimendu iraultzailearen borroka-molde bakarra zenik, ezta nagusia edota garrantzitsuena ere. Preseski horregatik kritikatu zuen PSIren jarduna, alderdi parlamentario bat izatetik ateratzen ez zena:

*“Bologna-ko Biltzarrea eta gero ere, Alderdi Sozialistak alderdi parlamentario soila izaten jarraitu du, demokrazia burgesaren muga estuen barnean geldirik mantentzen dena, gobernu-kastaren baieztapen politiko azalekoek bakarrik arduratzen dena; ez du proletalگو iraultzailearen eta proletalگو iraultzailearena soilik bereizgarria den alderdi baten eite autonomoa hartu.”*

*Alderdi Sozialistaren berrikuntza baten alde (1920) – Gramsci*

Honen ondorioz Gramsci-k PSIren baitatik III. Internazionalaren zuzentzarauak beteko zituen Alderdi Komunista sortzearen beharra hasi zen ikusten, hurrengo Biltzarrean gorpuztu beharrekoa. Orduan bordigisten “frakzio abstentzionistara” gerturatu zen hau prestatzeko, nahiz eta Alderdi Komunistari buruzko bere ikusmoldea bestelakoa izan:

*“Alderdi Komunista barneko askapen-prozesuaren tresna eta forma historikoa da, zeinaren bidez behargina gauzatzaile izatetik abiarazle izatera igarotzen den, masa izatetik buruzagi eta gidari izatera, beso izatetik garun eta borondate izatera; Alderdi Komunistaren eraketan aurkitu daiteke behin behargin-Estatuak beharrezko baldintza materialak antolatu ondoren bere garapena eta bere erabateko hedapena izango duen askatasun-ernamuina.”*

*Alderdi Komunista (1920) – Gramsci*

1921. urteko urtarrilean PSIren XVII. Biltzarrea egin zen Florentziako hirian. Gehiengo Komintern-ak bere kide izaten jarraitzeko eskatzen zuen Turati eta bere frakzio erreformista kanporatzearen aurka agertu zenez, komunistek Biltzarrea utzi eta Italiako Alderdi Komunista (PCI) sortu zuten Livornon, Nazioarteko Komunistaren sail gisa Italian. Gramsci-k Erdiguneko Batzordean sartzea lortu bazuen ere, zuzendaritza bordigisten eskuetan geratu zen, PCIren eta Italiako mugimendu iraultzailearen bilakaerarentzat kalamitatea izan zena. Togliatti, bestalde, PSIn geratu zen.

Apirilean, halere, Gramsci hauteskunde burgesetan parte hartzearen alde agertu zen berriro LONen:

*“Erantzun eztabaidaezin eta zehatza emateko, etorkizunean egiaztatu daitekeena dokumentatua izan delako, Alderdi Komunista hauteskundeetara aurkeztuko da. Indar sozialak hauteskundeetan banatzen direnean, Alderdi Komunistak ere jakin nahiko du bere tropak zeintzuk diren, babesten duten zifrak zenbatu. Hau beharrezko urratsa da proletalگوaren diktadurara eta behargin-klasearen Estatu bat sortzera eraman behar duen prozesu historikoan. Komunistentzat, hauteskundeak gizarte modernoaren berezko antolaketa politiko mota ugarietako bat dira. Alderdia*

*antolakuntza-formarik onena da; sindikatuak eta kontseiluak antolatzeko erdibideko formak dira; zeinetan proletalgoaren kiderik kontzienteenak kapitalaren aurkako borrokan kokatzen diren eta errekrutatzea plataforma sindikalean egiten den. Hauteskundeetan, masek euren helburu politiko orokorrak adierazten dituzte, Estatuari buruz dituzten ideiak, behargin-klasea klase menderatzaile gisa baimendu beharko litzatekeela. Alderdi Komunista, funtsean, proletalgo iraultzailearen alderdia da, hiri-industriara emandako beharginena; hala ere, ezin izango dute beren helburua lortu beste geruza batzuen babesa eta adostasuna gabe, nekazari txirotuak eta proletalgo intelektuala bezala.”*

*Komunistak eta hauteskundeak (1921) – Gramsci*

## LANGILERIAREN FRONTE BAKARRA

1921. urteko ekainean Komintern-aren III. Biltzarrea egin zen Moskun. Honetan, kapitalismoaren egonkortzearen eta burgesiaren kontraerasoaren testuinguruan, 'langileriaren fronte bakarraren' taktika onartu zen. Honen helburua langileriaren baitan ezarpena zuten antolakundeekin ekintza-batasuna adostea zen berehalako aldarrikapen edo borroka partzialen inguruan, ekonomikoak zein politikoak, praktikaren bitartez buruzagi sozialdemokratei mozorroa kentzeko eta anarkismoaren eta sindikalismoaren ale onenak erakartzeko.

Bordiga-k, aitzitik, etorkizuneko helburuetan desadostasunak zituztenekin elkarlana edo aliantza eta beste klaseek parte hartzen zuten erakunde edo fronte oro gaitzesten zituen. Are gehiago, berehalako aldarrikapenen alde borrokatzeak klaseen arteko kolaboraziora omen zeraman. Ondorioz Alderdia halabeharrez etorri beharreko iraultzari begira prestatzera mugatu behar zen, amaierako helburuen inguruko propaganda eta proselitismoa bitartez soilik.

Gainera, "aitmetikari" buruzko hamaika aitzakia baliatuta, Alderdiak langileriaren gehiengoaren gaineko eragina eskuratzea arbuiatzen zuen (oportunismoa eta "heresia" omen zena). Era honetan behargin-mugimenduan hegemonia lortzea baztertzen zuen, eta zer esanik ez herri-mugimenduan. Proletalgoaren diktadura Alderdiaren diktadurari parekatzera ere iritsi zen (harritzekoa ez dena, "klasea" bakarrik bere alderdi-sektako kideak baziren...).

Ondorioz, PCIko ordezkari bordigistek langileriaren fronte bakarraren aurka bozkatu zuten. Horregatik Lenin-ek hitzaldi bat eskaini zion Terracini-ri (orduan bordigisten aldekoa) haien kokapen okerra salatuz:

*"Biltzarreak ez badu erasoaldi indartsu bat egiten akats hauen aurka, tentelkeria "ezkertiar" hauen aurka, mugimendu osoa hiltzera kondenatuta dago. (...) Beraz, "printzipioen" ordezkari "helburu" hitza proposatzen dute, eta "gehiengo" hitza ezabatua izatea. Mila esker! Ez dugu egingo. (...)*

*(...) "Masak" hitzaz beldur da eta desagertarazi nahi du. Terracini burkideak oso gutxi ulertu zuen errusiar iraultzaz.*

*Errusian alderdi txiki bat ginen, baina, gainera, herrialde osoko behargin eta nekazarien sobiet gehienak gurekin zeuden. (Ahotsak: "Egia da"). Zuek baduzue antzekorik? Gure aldean armadaren ia erdia zegoen, orduan gutxienez 10 milioi gizon zituenak. Armadaren gehiengoak jarraitzen al zaituzte benetan? Erakutsi herrialde hori! (...)*

*(...) Zuek masa bat duzue milaka behargin apartidista, beren ohitura burges ttipiei atxikiak, bizitza hutsal bat daramatenak eta politikari buruz inoiz ezer entzun ez dutenak, modu iraultzailean jokatzeko hasten direnean. Mugimendua hedatzen eta areagotzen bada, pixkanaka benetako iraultza batean bihurtzen doa.*

*(...) Baina garaipenerako masen begikotasuna izan behar dugu. Ez da beti beharrezkoa gehiengo absolutua; baina beharrezkoa dena garaitzeko, boterea atxikitzeko, behargin-klasearen gehiengo*

ez ezik — hemen “behargin-klasea” esamoldea mendebaldeko Europan ematen zaion zentzuan erabiltzen da, hots, industria-proletalgoaren zentzuan —, landa-eremuko biztanleria langile eta esplotatuaren gehiengoa ere da. Honetan pentsatu al duzue zuek? Aurkitzen al duzue zuek Terracini-ren mintzaldian pentsamendu honen iradokizun bat bada ere? (...)”

*Hitzaldia Nazioarteko Komunistaren taktikaren defentsan (1921) – Lenin*

Bordiga-ren aburuz buruzagi oportunistei mozorroa kentzea kritika literarioaren (hots, sermoien) bitartez egin behar zen soilik, eta ez ekintza bateratuaren bidez. Eta nahiz eta masen babesak galdu, Alderdiko programaren inguruko propagandak haien kabuz bueltatzea eragingo zuen laster ala berant. Konpromezuei beldur hau printzipiora jasotzen zuen Bordiga-k, Alderdi Komunista mesianismo moduko batera zeramana iraultzaren eta masen etorreraren esperoan.

Aurrerago Togliatti-ri bidalitako gutun batean, bordigistek PCIn frakzio bezala jokatzeko jarraitzen zutela eta honen aurka borrokatzeko beharraz mintzo zena (honetan ere Togliatti-ri berak idatzitakoa “PSI sakabanatu ordez indartzen zuela” esan zion), masa langileen gaineko sozialdemokraziaren eraginaren aurka hitzak bakarrik ez, baizik eta ekintza politikoa ere beharrezkoa zela idatzi zuen Gramsci-k.

*“(...) Hiru urteko esperientziak erakutsi digu, ez soilik Italian, zein errotuta dauden ohitura sozialdemokratikak eta nola den zaila iraganeko hondakinak suntsitzea polemika ideologiko hutsarekin. Beharrezkoa da ekintza politiko zabal eta zehatz bat, egunero ohitura hori sakabanatuko duena, pertsonifikatzen duen erakundea sakabanatuz. Internazionalaren taktika egokia da horretarako.”*

*Togliatti-ri gutuna (1923) – Gramsci*

Azkenean gogoz kontra onartu behar izan zuten, baina soilik eremu sindikalean ezarriko zutela esanez.

Gramsci-k, ordea, poztasunez agurtu zuen langileriaaren fronte bakarraren taktikaren onarpena eta honen alde lan egiteari ekin zion. Alderdi Komunista geldotasunera kondenatzen zuten Bordiga-ren ikuskera sektario eta mekanizisten aurrean, Gramsci-k borrokarako deia luzatu zuen:

*“Komunistek borroka guztiak langileen fronte bakarraren ekintza bakar batean bideratzeko ekintza proletarioaren plana zirriborratua dute, erasoaldi burgesak mehatxatzen dituen lorpen beharginen multzoa oinarritzat duena. Plan hori gertaera berberetan marrazten da, era ia automatikoan langileak gatazken oinarria zabaltzera daramatenak, beste kategoria batzuk eragiten dieten gatazkekin bat eginez eta aldarrikapen politikoak eta ekonomikoak bilduz.*

*Ahaleginen sintesi hau Alderdi Komunistaren kontsignan programatikoki osatzen den bitartean, ekintza proletarioaren gidari bezala balio behar duenak, errealitatean hor daude bere egikaritzeari aurka egiten dioten faktoreak, eta hauen artean nagusia eskuineko buruzagien jarrera. Fronte proletario bakarraren aldeko ekintza borroka bikoitz bezala agertzen da honela: burgesiaren aurkakoa bere erasoek determinatutako frontean, eta sozialdemokraten aurka, antolakuntza*

*proletarioari taktika burgesa, behargin-indarrak bata bestearen atzetik eta bananduta garaitzea dena, frontearen zabaltzearekin erantzutea galarazten diotenak.*

*(...) Horregatik komunistek zeregin zehatza dute, aurkariak eurek aldarrikatzen duten ekintza-modua onartzen ez badute ere, eta garaipen proletariorako benetako aukerak aurkezten dituen bakarra dena. Haiek ez dute egiten printzipioaren amaierako gauzatze zikoitzaz, eta masa guztien aldetik, beren taktikaz, pasibitate-arrazoi bat edo haien erantzukizunerako zurigarri bat; edozeren aurretik borrokaren alde daude, bi frontetan borrokatzearen alde, aurkari burges irekiaren aurka eta oportunisten barne-ekortasunaren aurka.”*

*Alderdi Komunista eta abian den behargin-asaldura (1921) – Gramsci*

Baina kapitalismo inperialistak jada martxan jarrita zuen bere diktadura ikararen bitartez ezartzeko fenomeno atzerakoi berria: faxismoa. Langileriaren fronte bakarraren politikari ezetzak, aurreikusteko modukoa zen bezala, zorigaiztoko ondorioak izan zituen. Honek okerrera egin zuen PSIk faxistekin ‘Erromako Ituna’ sinatu zuenean (Gramsci-k “krimena” deitu zuena), azken hauei komunisten eta langileriaren aurkako indarkeriari bide emanez.

*“Gertaerek argi eta garbi erakusten dute batzorde sindikal komunistak fronte bateratu baten alde egindako proposamenak -beharginak eta nekazariak kapitalisten erasoen aurkako defentsarako prestatzeko- garaipena lortzeko aukera bakarra eskaintzen duela.*

*(...) Beharginek bakarrik geldiarazi dezakete Alderdi Sozialistaren taktika hondagarri eta hondatzailea. Haien interesak dira zuzenean jokoan daudenak. Ikara txuriaren eta haien soldatei erasoen aurkako borrokan, batzorde sindikal komunistaren deia proletalgoaren ekintza bateratuaren oinarri bihurtzea galdegin behar dute.”*

*Porrotaren taktika (1921) – Gramsci*

1922. urteko martxoan PCIren II. Biltzarrea egin zen Erroman. Honetan ez zen bordigistak salatu eta zuzendaritzatik kanporatu bi arrazoi nagusiengatik: alde batetik, faxismoaren aurkako biziraupen-borrokak antolakuntzazkoak ez ziren auzi guztiak baztertzeraz zeramalako, eta bestetik, militantziaren eta arduradunen gehiengoak ere ez zekielako desadostasun sakonak zeudenik PCIko zuzendaritzaren eta Komintern-aren artean.

Biltzarre honetan Bordiga-k taktikaren inguruko tesiak aurkeztu zituen (Gramsci-k sindikatuen ingurukoak garatu zituen), zeinetan haren ildo ultraezkertiar eta sektarioan sakondu zuen. Hauetan esaten zen ezkerreko alderdiek edo Gobernu burges batek faxismoaren aurka eskainitako aliantza ukatu behar zela, armak soilik iraultza proletariorako hartu behar zirelako. Ez hori bakarrik, Italian Estatu-kolpe faxista edo diktadura militarren ezarpena ezinezkoa zela esaten zen, Gramsci-ren borrokari esker azkenean idatziz ez agertzea lortu zena.

## BORROKA ANTIFAXISTA

1920an jada Gramsci faxismoa bezalako fenomeno atzerakoi baten arriskuari buruz mintzo zen LONen:

*“Kapitalismoak ordezkari politiko egunkari handietan (400.000 ale-tirada eta 1.000 hautesle) eta Senatuan baino ez izatera murriztuta dago, masa herrikoi zabalaren ekintza eta erreakzioek eraginik izan gabe egitura gisa, baina autoritaterik eta prestigiorik gabe herrialdean; horregatik, kapitalismoaren indar politiko gero eta gehiago identifikatzen da goi-hierarkia militarrekin, errege-goardiarekin, armistiziotik ugari diren abenturazaleekin, bakoitza besteen aurka, Kornilov eta Bonaparte italiarrean bilakatzea gura dutenak, eta horregatik kapitalismoaren indar politiko gaur egun soilik egikaritu daiteke Estatu-kolpe militar batean eta diktadura nazionalista hertsia ezartzeko ahaleginean, kirtendutako italiar masak armak erabilia hurbileko herrialdeak arpilatuz ekonomia berrezartzera eramango dituenak.”*

*Alderdi Komunista (1920) – Gramsci*

1921an, talde faxisten erasoak orokortzen hasi zirenean, Gramsci-k honen oinarri soziala burgesia ttipian (langile aristokrazia, dendariak, artisauak...) ipini zuen, mugimendu bezala hiriguneetako eta landa-eremuko oligarkiaren menpe bazegoen ere. Nezakal-eremuan, gainera, izaera gogorragoa hartzen zuen.

*“Une horretatik aurrera, burgesia ttipi hau gerrak ahuldutako eta ahitutako estatu-botere ofiziala baino ugazaba aberatsagoen eta ziurragoen inguruan antolatzen eta egokitzen saiatzen da. (...) “Faxismoaren” azken gorpuzkera politiko honetan ere, burgesia ttipia behin betiko agertu da bere benetako izaeran, kapitalismoaren eta lurjabegoaren morroi gisa, kontrairaultzaren agente gisa.”*

*Tximinoen herria (1921) – Gramsci*

Testuinguru honetan sortu zen ‘Arditi del Popolo’ erakunde armatu antifaxista. ‘Arditi’-ak I. Mundu Gerrate inter-inperialistan borrokatutako ejertzito italiarraren indar bereziak ziren. Gehienak faxisten alde kokatu baziren ere, beste batzuek ‘Arditi del Popolo’ herrikoia sortu zuten. Honetan anarkistak, sindikalistak, sozialdemokratik edo komunistak sar zitezkeen.

*“Ai behargin-klaseaz baimentzen badu, une batez bada ere, Turinen faxistek beren plana aurrera eramatea, beste hiri batzuetan egin duten bezala. Ahuleziarik txikiena ere, erabakigabetasun-zantzurik txikiena ere, ezin txarragoa izan liteke. Faxisten lehen ahaleginari langileek eman behar dioten erantzuna berehalakoa, zakarra, gupidagabea izan behar da; erantzuna hainbestekoa izan behar da, non haren oroitzapena jabe kapitalisten birbilobei helaraziko zaien. Azken finean, gerra gerra da, eta gerran ez da adosten noiz emango diren kolpeak.”*

*Gerra gerra da (1921) – Gramsci*

Bordiga, nola ez, hauen aurka agertu zen komunistak ez zirenekin elkarlan oro gaitzesten zuelako eta “proletargoaren kokatze militarra” alderdian oinarrituz egin behar zelako. Gainera, “antifaxismoa faxismoaren produkturik okerrenea zen” langileria borroka antikapitalistatik



desbideratzen omen zuelako. Zaila da jakitea ergelkeria hauek benetan sinesten zituen ala koldarkeria hutsagatik esaten zituen (edo biak).

1921eko uztaillean, mugimendu antifaxistak Erroman deitutako manifestazio arrakastatsua eta gero, Lenin-ek artikulua idatzi zuen ‘Pravda’-n, Alderdi boltxebikearen aldizkari ofizialean, ‘Arditi del Popolo’ goraiatuz eta antifaxismo militantearen aurka kokatzen zen jarrera bordigista kritikatu. Egun batzuk geroago Gramsci-k ere artikulua idatzi zuen, komunistak honetara sartzeko adoretuz:

*“Komunistak Arditi del Popolo-en aurka daude? Aitzitik. Proletalgoaren armatzea dute xede, burgesia garaitzeko eta kapitalismoak sortutako ekoizpen-indar berrien antolaketa eta garapena zaintzeko gai den indar armatu proletario bat sortzea.”*

*Arditi del Popolo (1921) – Gramsci*

Orduan PCIko zuzendaritza bordigistak, bere ezkerkeria sektarioari leial, debekatu egin zien bere militanteei ‘Arditi del Popolo’-n sartzeko eta bere talde propioa sortu zuten, ‘Squadre comuniste d’azione’, ekintza handirik aurrera eramanez ez zutenak eta estrategia legalista eta ez-bortitza bat jarraitu zutenak. PSIk ere ez zuen ‘Arditi del Popolo’ babestu eta faxismoaren lehen urtetan desagertu zen.

*“Gaur egun, ordea, burgesia proletalgoaren aurka mugitzen dituen ondo epeldutako arma batzuekin dago, eta eremu politikoan erasotzen dio erreakzioarekin eta faxismoarekin, eta eremu ekonomikoan lantegien itxierarekin eta lehen erdietsitako lan-hitzarmenen salaketekin. (...) Egiatan, gaur egun erasoaldi burgesaren berragerpena ekiditeko bide bakarra gobernu-aparatu burgesaren eta burgesia beraren armagabetzea da, eta proletalgoaren boterearen eta indar armatuaren ekintza zuzena; hau da, honen diktadura iraultzailea.*

*Egungo egoeran, non burgesiak bere diktadura ekonomiko eta politikora jotzen duen, bere erregimenaren forma aldaezin utziko duena, baina behargin-antolakundearen indarguneak suntsituko dituena eta proletalgoa gerra aurreko egoerara edo are atzerago bultzatuko duena, sozialdemokraziaren adierazleek, zeinentzat ere ez duen balio orain arte erabiltzen zuten zurigarri erosoak, jada ez dira ausartzen inolako programa formulatzen. Eutsi egiten dute, edo hobeto esanda, atzera egiten dute borrokarik egin gabe behartuta ez egoteko onartzerik beharrezkoa dela klase-borrokarako proletalgoaren armatzea, ez ideala soilik, baizik eta materiala ere, zeinarekin halabeharrez lortzen duen borroka-aparatu honen sendotze-programa botere-aparatu iraultzaile batean.“*

*Alderdi Komunista eta abian den behargin-asaldura (1921) – Gramsci*

Bordiga, goardia txuriak (talde faxistak) akabatzearen eta iraultza proletarioaren alde armak hartzearen inguruko hitzontzikeria asko erabili eta gero (ez bata eta ez bestea egin ez zuelarik), egoera kaltegarri batean borroka iraultzailea aurrera eramatea ezinezkoa zela eta gauzak aldatu ahal zirela pentsatzea “akats boluntarista” zela esaten hasi zen, Alderdia langileria nahasten zuen jokaera pasibo batera eramanez.

1922ko maiatzaren 1ean, Gobernuaren eta faxisten mehatxuak arren, ‘Alleanza del Lavoro’ koalizio sindikalak deituta lanuzte eta mobilizazio jendetsuak egon ziren. Egun honetan talka bortitzak egon ziren beharginen eta faxisten artean, bi aldetan hildakoak utziz. Bordiga sozialdemokratek greba orokorrerako deialdiari uko egin izanaz soilik kexu zen bitartean, Gramsci-k langileriaren fronte bakarraren politika defendatu eta faxisten aurka borrokatzera deitu zuen:

*“Frontearen batasunaren taktikarekin Maiatzaren 1eko hauteskundeetan jendetza behargin zabalak bildu ahal izan dira, nahiz eta oso argi zegoen azken partehartzailearen kontzientzia ere ez zela ohiko eta usadiozko koreografia, borroka-egun bat baizik. Baina proletalgoak erreakzioari eta faxismoari dion herraren erakustaldi hau, langileen jendetza zabalak beti animatzen duen klase-izpirituarena, ez da nahikoa faxismoari eta erreakzioari eutsi ahal izateko. Faxismoa ez du guztion adostasun platonikoak itzaliko: errebolbera eta ukabilak ez dira indargabetuko lastaira baten gainera botaz. Faxismoak ez du kopurua, baina antolaketa bateratua eta zentralizatua du, eta hori da bere indarra, botere ofizial burgesaren zentralizazioan integratua.*

*(...) Hala ere, abantaila handia da jada masen bilera komunak egin ahal izana, horrek moral proletarioa altxatzen duelako eta komunisteri ahalbidetzen dielako proletalگو guztiari beren hitz argia eramatea. Fronte bakarraren taktikaren italiar esperimentu interesgarriaren geroagoko garapen batek abantaila ukaezinarekin antolakunde-batasun eraginkor eta barnekoa integratzera eramango du.”*

*Irakaspenak (1922) – Gramsci*

1922. urteko urrian ator beltz faxistek ‘Erroma gaineko martxa’ abiatu zuten eta herrialdeko leku guztietan tokiko autoritateak hartzen joan ziren Estatu burgesaren, poliziaren eta ejertzitoaren konplizitateaz. Behin Erromara iritsita, Italiako erregeak Mussolini-ri lehen ministro izateko eta gobernu eratzeko eskatu zion. Oraindik parlamentua mantendu zuten halere, nahiz eta gero eta ahalmen gutxiago izan. Bordiga eta bere jarraitzaileek PCIn ezarritako ildo sektario eta antileninistak honetan faxismoari bidea erraztu zion.

## TAKTIKA IRAULTZAILEA FAXISMOPEAN

1922. urteko azaroan Komintern-aren IV. Biltzarrea egin zen, Moskun. PCIren ordezkari gisa Bordiga eta, lehen aldiz, Gramsci joan ziren.

Han Bordiga-k faxismoari buruzko hitzaldi bat eman zuen, non bere burua zuritzeko gertatutako guztiaren errua PSri egotzi zion eta, oraindik ere, faxismoa demokrazia burgesatik desberdina ez zela esan zuen. Halere egoera honetan langileriak eginkizun esanguratsurik ez zuela eta pasiboki jokatu behar zuela esan zuen, ezintasunaren apologia negargarria eginez. Gainera, lotsagabeki adierazi zuen “orduan lehen baino hobeto lan egin ahalko zutela”, bere taktika okerrak aldatzeko asmorik ez zuela argi adieraziz. Komintern-ak, aitzitik, faxismoa demokrazia burgesaren oinarrien aurkakoa zela eta komunistek langileria honen aurkako borrokaren (metodo ilegalak barne) buruan ipini behar zutela ebatzi zuen.

Biltzarre honetan ‘behargin-Gobernuaren’ (edo ‘behargin eta nekazarien Gobernuaren’) politika berria onartu zen langileriaren fronte bakarraren taktikaren luzapen gisa, aldarri honen bitartez sozialdemokratak burgesiak banandu eta langileriaren aldeko neurrien bidez borroka iraultzaileak sustatzeko. Bordiga honen aurka agertu zen baina azkenean onartu zuen, hitzez bazen ere.

Gramsci-k, aldiz, azkar ulertu zuen behargin eta nekazarien Gobernuaren taktikak faxismopeko Italian izan zezakeen erabilgarritasuna. Are gehiago faxismoak eremu sindikalean borroka maila jakin bat baimendu baina politikoan errotik mozten zuenean. Komintern-ak martxan jartzea agindu zion PCIko aldizkari ofizialaren izena aukeratzeko orduan, hurrengo idatzi zuen:

*“Nik ‘L’Unità’ izenburu huts eta sinple gisa proposatzen dut, esanahi bat izango duena beharginentzat eta beste esanahi orokorrago bat, uste baitut Betearazle Hedatuak behargin eta nekazarien gobernuari buruz hartutako erabakiaren ondoren guk garrantzi berezia eman behar diogula hegoaldeko auziari, hau da, beharginen eta nekazarien arteko harremanen arazo ez soilik klase-harremanen arazo bat bezala, baizik eta bereziki lurralde-arazo bat bezala, hots, arazo nazionalaren aldeetako bat bezala planteatzen den auziari.*

*Pertsonalki uste dut “behargin eta nekazarien gobernu” kontsigna Italian honela egokitu behar dela: “Behargin eta nekazarien errepublika federala”. Ez dakit gaurko unea ona den honetarako, baina hala ere uste dut faxismoak hartzten doan egoerak eta konfederalen politika korporatibo eta protekzionistak gure alderdia kontsigna honetara eramango dutela. (...)*

*PCIko BBarri [L’Unita] (1923) – Gramsci*

Bordiga-k nazio-auzia soilik burgestzat zuen eta nazio-askapen gudak eta arpilatze-gerrak parekatzera iritsi zen, hots, ekonomismo inperialista (Lenin-ek biziki borrokatutakoa) defendatzen zuen: erdigune inperialistan autodeterminazio-eskubidea ukatzea eta kolonietan zuzenean independentzia aldarrikatzea, baina soilik honek kapitalismoaren garapena erraztuko zuelakoan. Horregatik, irltako eta hegoaldeko autonomiaren aldeko aldarriak “atzerakoiak” deitzen zituen eta nekazarien auzia aztertzerakoan baztertu behar zirela zioen. Hau hitzontzikeria oso “internazionalistaz” janzten zuen, noski.

Gramsci-k, ordea, beti izan zuen kontutan iparraldeko burgesiak herrialdean sortutako barne-kolonialismo egoera, irletako kasuan nazio-izaera ere hartzen zuenak. Honekin lotuta, jada 1920ean beharginen eta nekazarien (laborariak zein burges ttipiak) arteko batasunaren beharraz mintzo zen:

*“Iparraldeko burgesiak hegoaldeko Italia eta uharteak azpiratu ditu eta esplotatutako kolonietara murriztu ditu; iparraldeko proletalgoak, esklabotza kapitalistatik emantzipatuz, Iparraldeko banku eta parasitismo industrialaren menpe dauden hegoaldeko masa nekazariak emantzipatuko ditu. Nekazarien berroneratze ekonomiko eta politikoa ez da landu gabeko edo gaizki landutako lurren banaketan bilatu behar, baizik eta proletalgo industrialaren elkartasunean, aldi berean, nekazarien elkartasuna behar duenak, haren “interesak” baitira kapitalismoa lurjabetatik ez birpiztea eta hegoaldeko Italia eta uharteak ez bihurtzea kontrairaultza kapitalistaren base militar batean.”*

*Behargin eta nekazariak (1920) – Gramsci*

Gramsci-k azpimarratu egin zuen langileriak gidatu beharreko subjektu iraultzailean biztanleriaren gainontzeko klase zapalduak (landa-eremuko eta hiriko burges ttipiak barne) ere sartu behar zirela, Italiako iraultzan nekazalgora eta honen aldarrikapenek berebiziko garrantzia izanik. Aurrerago idatzitako (eta bukatu gabe gelditutako) helgoaldeko auziari buruzko lanean, esan zuen:

*“Komunista turindarrek “proletalgoaren hegemoniaren” auzia planteatu zuten zehazki, hau da, diktadura proletarioaren eta behargin-estatuaren oinarri sozialarena. Proletalgoa klase agintari eta nagusi bihurtzeko klase aliantza sistema bat sortzea lortzen duen heinean, biztanleria langile gehiena kapitalismoaren eta estatu burgesaren aurka mugiaraztea ahalbidetuko dionak. Horrek Italian esan nahi du, Italian dauden benetako klase-harremanak direla eta, nekazari-masa zabalen adostasuna lortzen duen heinean. Baina nekazarien auzia Italian historikoki zehaztua dago, ez da “nekazarien eta laborantza-auzia, oro har”; Italian nekazarien auziak, italiarren tradizio jakin batengatik, italiarren historiaren garapen jakin batengatik, bi forma tipiko eta berezi ditu: hegoaldeko auzia eta Vatikanoko auzia. Proletalgo italiarrantzat nekazari gehienak konkistatzeak, beraz, esan nahi du: bi gai horiek ikuspegi sozialetik menperatzea, ordezkatzeko dituzten klase-eskakizunak ulertzea, eskakizun horiek bere iragate-programa iraultzailean txertatzea, eskakizun horiek borroka-aldarrikapenen artean planteatzea.”*

*Zenbait gai hegoaldeko auziari buruz (1926) – Gramsci*

Bordiga-k, kontrara, nekazal mugimendua eta honekin ezarri beharreko aliantzak gutxiesten zituen, Gramsci-k lurjabeen eta Elizaren eraginaz askatzeko xedeaz honi gerturatzeko egindako saiakerak kritikatu. Berak borroka demokratikoak (herri osoa barnebiltzen dituzten aldarriak eta ez direnak espezifikoki sozialistak, egoera batzuetan klase burgesak ere barne hartuz) gaitzesten zituen, hauek “interklasistak” deituz. Gainera, prozesu iraultzailean zehar eman beharreko faseak, amaierako helburuak lortu ahal izateko agertokiak irekitzen doazenak eta zeinetan zehar aldarriak eta klaseen arteko aliantzak aldatu behar diren, arbuiaitzen zituen.

Bere ikuskera zurrun eta metafisikoa justifikatzeko Marx eta Lenin-ez baliatzen saiatzen zen hauek “jarrera oportunistak” hori desegin zutela esanez, gezur berrikustzaile larria dena (‘Manifestu Komunista’ beraren azken kapitulua ikusi besterik ez dago honetaz jabetzeko). Marx-en kasuan,

adibidez, ezaguna da absolutismoaren aurkako Germaniako iraultzan, behin burgesia ttipia asetuko zuten aldarri demokratikoak lortuta, langileriak honekin ezarritako aliantza desegin eta klase zapaltzaileen Estatu-makineria osoa suntsitzeko beharraz mintzo izana. Lenin-en kasuan, argi eta garbi adierazi zuen Errusiako iraultzan tsarismoa uzkaileteko eta fase demokratiko burgesari hasiera emateko nekazari guztiekin ezarri beharreko aliantza, fase sozialistara igarotzeko orduan nekazari txiroekin soilik ezarri behar zen bitartean. Honek Trotski-ri aurre egin behar izatea ekarri zion, nekazariarekin aliantza mespretxatu eta iraultza zuzenean sozialista izan behar zela zioenak.

*“Gaur egungo egoera objektiboa islatu behar du, proletalgoari ekintza autonomo, klasekoa eta independente baterako aurkezten zaizkion aukerekin; egungo termino politikoekin Nazioarteko komunistaren programaren interpretatzaile leial eta integralaren tradizioarekin jarraitu behar du. Premiazko arazoa, beharrezko kontsigna gaur behargin eta nekazarien gobernuarena da. Ezagutzera eman, Italiako baldintza zehatzetara egokitu, gure bizitza nazionalako gertaera bakoitzetik ondorioztatzen dela, alderdi eta joera ugariaren aldarrikapen guztiak laburbiltzen eta barneratzen dituela erakutsi behar da, zeinetan faxismoak behargin-klasearen borondate politikoa banatu duen, baina batez ere masa nekazariena. Horrek ez du esan nahi, noski, berez beharginenak eta industrialak diren gaiak alde batera utzi behar ditugunik, alderantziz baizik. Esperientziak frogatu du, Italian ere, lantegi-antolakundeek egungo aldian duten garrantzia, alderdiaren zelulatik barne-batzordera arte, masa osoaren ordezkartzara arte. (...) Lanera, bada: gure burkide onenek buruan sartu behar dute baieztapen politiko bat ere badela, gure mugimenduaren bizitasun eta garapen-gaitasunaren adierazpen bat, eta beraz, erakustaldi antifaxista eta iraultzaile bat.”*

*L'Ordine Nuovo-ren programa (1924) – Gramsci*

IV. Biltzarretik bueltan, komunisten atxiloketak masan hasi ziren eta Bordiga atzeman zuten (Gramsci-ren aurka ere atxilotze-agindua zegoen baina Moskun jarraitzen zuen, erietxe batean). Orduan Komintern-ak gutun bat bidali zion PCIren zuzendaritzari Bordiga-ren ‘taktikaren inguruko tesiak’ ezeztatuz eta ikuskera hau Nazioarteko Komunistaren ildoarekin desadostasunean zegoela esanez. Honi erantzunez, Bordiga-k manifestu bat idatzi zuen espetxean ‘langileriaren fronte bakarraren’ eta ‘behargin eta nekazarien Gobernuaren’ politika gaitzetsiz: bere esanetan hau oportunistora zeraman printzipio eta programa komunistaren aurkako zelako eta Alderdiak ekintza politikorik ez baizik eta proletalgoaren diktaduraren aldeko asaldura bakarrik egin behar zuten, proletalgoa militariki altxatuko zen “salbazio-egunaren” zain. Ondoren PCIko Erdiguneko Batzordeaz dimititu zuen. Handik hilabete batzuetara absolbitu egin zuten, Gramsci-k Komintern-aren aginduz erbestera, Viena-ra, joan behar izan zuten bitartean.

Gramsci-k manifestu hau sinatzera uko egin zion ez zegoelako ados esaten zuenarekin eta “ez zuelako nahi benetako pailazo baten itxura eman”. Hor ikusi zuen Gramsci-k beharrezkoa zela “ezkerreko estremisten” aurka borrokatzea Alderdi Komunista garatu eta “Alderdi Sozialistaren kanpo-frakzio huts bat izateari utzi” nahi bazuen. Beste gutun batean esan zuenaren arabera, ordura arte ez zion Bordiga-ri aurre egin honen egolatriak PCIren baitan eragingo zuten zatiketa ekiditeko, baina jada ezin zuten horrela jarraitu. Bordigistek bigarren bertsio bat idatzi zuten, baina Gramsci-k hau ere arbuiatu zuen. Azkenean, PCIk manifestu hau ez argitaratzea erabaki zuen.

*“Lehenik eta behin, errusiar komunisten ikuskera politikoa nazioarteko eremu batean eratu delako, eta ez nazionalen; bigarrenik, erdialdeko eta mendebaldeko Europan kapitalismoaren garapenak, geruza proletario zabalen eraketa ez ezik, langile aristokrazia ere ekarri duelako, bere burokrazia sindikal eta talde sozialdemokraten eranskinekin. Erabakitasuna, Errusian zuzena zena eta masak kalera, eraso iraultzailera bultzatzen zituena, erdialdeko eta mendebaldeko Europan zaildu egiten da kapitalismoaren garapen gorenak sortutako gainegitura politiko horiekin guztiarekin, motelagoa eta zuhurragoa bihurtzen du masen ekintza, eta beraz, alderdi iraultzaileari estrategia eta taktika askoz korapilatsuagoak eta patxadatsuagoak eskatzen dizkio boltxebikeek 1917ko martxotik azarora bitartean behar izan zituztenak baino.”*

*Togliatti, Terracini eta beste batzuei gutuna (1924) – Gramsci*

1924ko apirillean hauteskundeak egin ziren faxismopean, non eskuindarren blokeak gehiago absolutua lortu zuen. PCIk ere eserleku gutxi batzuk lortu zituen eta Gramsci diputatu izan zen hautatua, honek eskaintzen zion immunitateari esker Erromara bueltatu ahal izan zuelarik. Baina ekainean faxistek hauteskundeetan irregulartasunak salatu zituen Matteotti PSiko diputatua erail zuten. Honek ‘Matteotti krisia’ eragin zuen: lanuzte partzialak, iritzi publikoa antifaxisten alde jartzea, burgesia ttipiak bere babesa gutxitzea... eta diputatu antifaxistek parlamentutik ateratzea erabaki zuten. Bordigistek hau kritikatu zuen (faxismopean bai zen beharrezkoa parlamentua egotea, antza).

*“Gaur borroka antifaxistaren frontearen dauden alderdi ezberdinen jarreratik eta jokaeratik lehenengo baieztapen bat egin daiteke segituan: oposizio konstituzionalaren ezintasuna. Alderdi hauek, iraganean, faxismoari oposizioarekin, burgesia ttipia eta neurri batean nagusi den plutokraziatik kanpo bizi diren burgesiaren geruzak erakartzera jotzen zuten argi eta garbi, herrialdearen bizitza ekonomiko eta finantzarioan nagusi izatearen ondorioak pairatzen baitituzte neurri batean. Haiek gobernu-sistema ez hain diktatorialetarantz jotzen dute. Alderdi hauek gaur esan dezakete beren helburua lortu dutela, haien faxismoaren aurkako borroka sakon gidatzeko premisa dena. Haren ekintza, ordea, egungo egoeran balio erabakigarria izan beharko lukeena, zalantzazkoa, zalantzagarrria eta eskasa da. Bere mamian burgesia ttipiak faxismoaren aurkako borrokari bere kabuz aurre egiteko duen ezintasuna islatzen du, arrazoi multzo batek zehaztutako ezintasuna, zeinetatik kapitalismoaren eta proletarioaren artean betiereki ibiltzen diren geruza hauen jarrera bereizgarria ere eratortzen den.*

*Hauek faxismoaren aurkako borroka eremu parlamentarioan konpontzeko ilusioa lantzen dute, gobernu faxistaren funtsezko izaera diktadura armatuarena dela ahaztuz, milizia nazionalari ezarri nahi dizkion apaingarri konstituzional guztiak arren. Honek, bestalde, ez du eskuadrismoaren eta ilegaltasunaren ekintza ezabatu: faxismoa, bere benetako esentzian, plutokrazia kapitalistaren eta lurjabeen kontura zuzenean jarduten duten indar armatuek osatzen dute. Faxismoa eraistek, azken batean, indar horiek behin betiko zanpatzea esan nahi du, eta hori ezin da lortu ezintasunaren eremuan ez bada. Parlamentuko edozein konponbide indargabea izango da. Konponbide horretatik erator litekeen gobernuaren izaera edozein dela ere, Mussolini-ren gobernu berrosatzea edo demokratikoa deritzon gobernu bat eratzea (nahiko zaila dena, bestalde), behargin-klaseak ezin*

*izango du izan bere interesak eta eskubide oinarrizkoenak ziurtatuak egongo direnaren inolako bermerik, Estatu burges eta kapitalista batek baimentzen dituen mugetan ere, indar horiek ezabatzen ez diren bitartean. (...) Beharginak ez diren indarrek fronte antifaxistan elkartzeak ez du aldatzen gure baieztapena, zeinaren arabera behargin-klasea da borroka honetan gidari izan daitekeen eta izan behar duen klase bakarra.”*

*Burgesia ttipiaren krisia (1924) – Gramsci*

Urrian, PCIko EBak Alderdiko Idazkari Nagusi aukeratu eta gero, Gramsci-k Antiparlamentu bat sortzeko proposamena egin zien oposizioko alderdiei faxismoak burgesiaren bloke zapaltzailean sortutako arrakalaz baliatzeko asmoz. Bordigistek hau ere kritikatu zuten jomuga “demokratiko eta burgesak” zituelakoan, preseski honek indar demokratiko-burgesek faxismoari benetan aurre egiteko ahalmenik ez zutela azaleratzeko balio zuen bitartean. Gramsci-k hau leninismoari kontra jartzen zitzaion “ezker bordigiari indigenaren zurruntasun formalista” deitu zuen.

*“Faxismoari oposizioari mugimenduan zatirik garrantzitsuena Alderdi Liberalera igaro da, blokeak faxismoari aurka egiteko demokrazia burges parlamentarioaren programa liberal zaharra, konstituziora, legalitatera, demokraziara itzultzea baino beste programarik ez duelako. Faxismoaren ondorengotzari buruzko eztabaidan, Alderdi Liberalaren kongresuaren arabera, oposizioak herri italiarra hautakizun baten aurrean jartzen du: edo faxismoa edo liberalismoa; edo Mussolini-ren diktadura odoltsuko gobernu bat edo Slandri, Giolioti, Amendola, Turati, don Sturzo edo Vella-ren gobernu bat, italiar demokrazia liberal on eta zaharra berrezartzeko joera duena, zeinaren mozorropean bere menderatze esplotatzailea ezartzen jarraituko duen.*

*(...) Proletario industrialen eta nekazarien masaren ekintza beharrezkoa da faxismoaren gaineko garaipenerako, klase-borrokarako bere ondorio guztiekin. Zalantzarik gabe, proletalgoak burgesiaren eta burgesia ttipiaren baitan garatu diren kontraesanak eta borroka erabili behar ditu faxismoaren aurkako borrokan. Baina ekintza zuzenik gabe ezin izango da inoiz faxismoa eraitsi. Arazoa era honetan planteatzeak, aldi berean, faxismoaren ondorengotzaren auzia argi eta garbi planteatzea esan nahiko luke. Behargin eta nekazari masen ekintzaren ondorioz faxismoak jasandako porrotarekin liberalismoak ez du inolako paperik izango ondorengotzan: eskubide hau behargin eta nekazarien gobernuari dagokio, milizia faxistak desarmatzeko gai izango den eta erabakimen zintzoa izango duen bakarra, behargin-klasea eta nekazariak armatuz.”*

*Ez faxismoa, ez liberalismoa: sobietismoa! (1924) – Gramsci*

Baina oposizioko alderdiek Antiparlamentu proposamena ukatu egin zuten ez zutelako babestu nahi faxismoaren aurka borrokatzeko zinez beharrezkoa zena, hau da, masa langileen, behargin eta nekazarien, mobilizazio iraultzailea. Orduan komunistek parlamentura bueltatu behar izan zuten (eta orduan ere bordigistak aurka). Urte bukaerarako PCIk 30 mila kide izatera iritsi zen (PSIk baino gehiago), faxismoa boterera iritsi zenean baino 3 bider gehiago. Honek Alderdi Komunista bordigismoaz garbitu eta «boltxebizatze» erronka mahaigaineratu zuen.

## PCI «BOLTXE BIZATZEAREN» ALDEKO BORROKA

1924. urteko ekainean Komintern-aren V. Biltzarrea egin zen Moskun, Lenin hil osteko lehenengoa. Honetan, langileriaren fronte bakarraren eta behargin eta nekazarien Gobernuaren politika berrestez gain, Alderdi Komunistak «boltxebizatze» politika onartu zen. Bukharin-ek hitzaldi bat eman zuen Bordiga-ren aurka, Marx-en teoria desitxuratzeagatik “berrikustzaile” deituz, “masak ahaztea” aurpegiatuz, “alderdia sekta bihurtzeko” bere asmoa salatuz, bere ildoak “gutxiengo terroristarena” zela esanez eta bere jarraitzaileak “frakzio antikomunista” izendatuz. Biltzarrearen amaieran Komintern-ak PCIko Batzorde Betearazlea berrantolatu eta Bordiga honetatik kanporatu zuen.

Bordiga-ren ikuspegia Alderdiaren inguruan ez zen inoiz izan boltxebikeena: zentralismo demokratikoaren aurka zegoen eta honen orde zentralismo “organikoa” (zuzenean burokratikoak esateak itxura txarra zuelako) proposatu zuen, non “Jaungoikoaren Eskuak” aukeratutako “jakintsu”-batzarra (ala eroena zen?) jaun eta jabe zen. Hau justifikatzeko demokrazia burgesiaren gauza zela eta komunistek baztertu behar zutela zioen (antidemokratikoa zenez gutxiengoak gehiengoa baino ikuspegi iraultzaileagoa zuela esatera iritsi zen... ). Alderdi aristokratiko eta burokratiko honetan edonor edozein momentuan sar edo atera zitekeen, barne-demokraziarik ez egotean berdina baitzen alderdikide izan ala ez, soilik ero-batzarraren aginduak betetzen zituztenak hartzen baitzituzten militante gisa (baita “langile” gisa ere!). Honek ez zuen diziplina boltxebikearekin zerikusirik, antolakuntza-arloan mentxebikeetatik (edo anarkismotik) gertuago kokatuz.

Bordiga-k ezin izan bazuen ere bere ikuspegi atzerakoia PCIn guztiz ezarri, bai izan zuen eragina honen lehen urteetako funtzionamenduan. Gramsci-k honela deskribatu zituen honen ondorioak:

*“Alderdi Sozialistaren ohiko funtzionamenduari erreakzio gisa, zeinetan eztabaida asko izaten zen eta gutxi konpontzen zen, eta haren batasuna pusketa banandu anitzetan hausten zen frakzioen, joeren eta sarri aginte-talde pertsonalen etengabeko talkaren ondorioz, gure Alderdian jada ezer eztabaidatzen ez zen puntu batera iritsi ginen. Zentralizazioa, zuzendaritza-batasuna eta ikuskera-batasuna geldialdi intelektual bihurtu ziren. Horretan faxismoaren aurkako etengabeko borrokaren beharrak lagundu zuen; jada gure Alderdiaren sorreran fase aktibo eta erasotzailera igaro zena, baina Alderdiaren ikuskera okerrak ere lagundu zuen, Erromako Biltzarreari aurkeztutako ‘taktikari buruzko tesietan’ azaldu zen bezala. Zentralizazioa eta batasuna mekanikoki ulertzen ziren: Erdiguneko Batzordea, eta hobeto esanda Batzorde Betearazlea Alderdi osoa zen, berau ordezkatu eta zuzendu beharrean. Ikuskera hau etengabe ezarriko balitz, Alderdiak bere izaera politiko bereizgarria galduko luke eta, kasurik onenean, ejertzito batean bihurtuko litzateke (eta mota burgeseko ejertzittoa); bere erakarpen-indarra galdu eta masetatik bananduko litzateke.”*

*Masaren prestakuntza ideologikoa (1925) – Gramsci*

Alderdi kideen maila teorikoaren arloan, militanteen formakuntzan “alderdi-kolorerik gabeko unibertsitateak” kritikatu ostean, bordigismoak izan zuen eragina ere salatu zuen:



*“Gure Alderdian marxismoaren doktrinaren ezagutza sakona falta da, eta ondorioz, baita leninismoarena ere. Badakigu hau italiar mugimendu sozialistaren tradizioarekin lotuta dagoela, zeinaren baitan masei sakonki interesatzen zitzairen eta haien prestakuntza ideologikoan laguntzen zuen eztabaida teorikorik ez zen egon. Hala ere, egia da, halaber, gure alderdiak ez duela gaur arte gauzen egoera hori gainditzen lagundu eta Bordiga burkideak horri eusten laguntzen duela, masen ekintza iraultzailea jarduera kultural zehaztugabe batekin ordezteko joera duen jarrera erreformista Alderdiaren barne-jarduerarekin nahasiz, haren kide guztien maila mugimendu iraultzailearen berehalako eta urruneko helburuak erabat ezagutu arte igotzera bideratua.”*

*Gure Alderdiaren barne-egoera eta hurrengo Biltzarrearen zereginak (1925) – Gramsci*

1925eko martxoaren amaieran Gramsci Komintern-aren Batzorde Betearazlearen V. Bilera hedatura joan zen Moskura. Bilera honetan Zinoviev-ek Bordiga-ri “eskuin muturrera” igaro izana leporatu zion. Han Gramsci-k ‘karbonarismo’ (klandestinitatetik ez ateratzeko joera) salaketak entzun behar izan zituen, honen aurrean PCIk legalitateta eta ilegalitatea erabiliz aurrera zeraman jarduera defendatu zuelarik (gogoratu beharra dago handik hilabete batera Gramsci-k hitzaldi bat eman zuela parlamentu faxistan, non etengabeko etenduren artean masoien aurkako lege berria komunisten aurka erabiliko zutela defendatu zuen). Bilera honetan ere Alderdiaren antolakuntza zeluletan oinarritu ordez bilera zabaletan oinarritzeko joera likidazionista salatu zuen.

*“Egia da gure egoera boltxebike errusiarren egoera baino askoz zailagoa dela; izan ere, guk Estatu faxistaren erreakzioaren aurka ez ezik, sindikatuetan erreformisten erreakzioaren aurka ere borrokatu behar dugu. Hain zuzen ere, egoera zailagoa delako izan behar dute indartsuagoak gure zelulek, hala antolakuntzaren nola ideologiaren aldetik. Edozelan ere, boltxebizazioa, antolakuntzaren esparruan islatu denagatik, ezinbesteko beharra da. Inor ez da ausartuko esaten Alderdiaren antolaketarako irizpide leninistak errusiar egoerari dagozkionak direnik eta gertaera mekaniko hutsa denik haien ezarpena mendebaldeko European. Zelula bidezko Alderdiaren antolaketari aurka egiteak oraindik ikusmolde sozialdemokratiko zaharrari lotuta egotea esan nahi du, benetan eskuinaren eremuan egotea esan nahi du, hau da, sozialdemokraziaren aurka borrokatu nahi ez den eremu batean.”*

*Gure Alderdiaren barne-egoera eta hurrengo Biltzarrearen zereginak (1925) – Gramsci*

Auzi honetan Bordiga-k bat egiten zuen Serrati sozialdemokratarekin: zelulen ordez bilera zabalak defendatzen zituen, non intelektual “organikoek” (burokratek) hobeto kontrolatu zezaketen alderdia. Gramsci-k Alderdi Komunista gehienbat behargin-klasea oinarri izateko babesten zituen lantegi-mailako zelulen aurrean, Bordiga-k klase guztietako kideek parte hartzen zuten bilera zabalak defendatzen zituen, jatorri burges ttipiko “apaizek” (Bordiga bezala) errazago izateko “parrokia” kontrolpean edukitzea.

*“Auzi hauen garrantzi handiak eta ekar ditzaketen ondorio larriak behar ez bezala konpontzen badira (“era originalean”, esango luke Esteka-Batzordeak) zelulen auzian ikusi daiteke, Alderdiak oinarri gisa eratu nahi duena, lurralde-sail edo -bilera zaharren ordez. Esteka-Batzordea zelulen aurka dago. Zergatik? Argi dago: lantegi-zelulak beharginek bakarrik osatzen dituzte, edo osatzera*

*jo behar dute: baina behargina ezin da iraultzailea izan; aitzitik, iraultzailea da lurralde-bileran, bilera horretan abokatuak, irakasleak... ere badaudelako, bistan denez.*

*Esteka-Batzordeak Alderdiaren antolaketa-sistemei eskaintzen dien espazio guztia akats eta baieztapen barregarrien multzo bat da. (...)*

*Alderdia desbideratze antileninistak borrokatuz indartzen da (1925) – Gramsci*

Zeluletan oinarritutako antolakuntza baztertzeko, Bordiga-k Errusiako egoera Italiakoaz desberdina zela esaten hasi zen. Honek ez zuen zentzurik, alde batetik, faxismopeko Italiaren egoera ez zelako autokrazia tsaristakoaz hain desberdina, eta bestetik, hori hala balitz ez lukeelako zentzurik izango Alderdi boltxebikearen antolakuntza-oinarria, boterean egonda ere, zeluletakoa izaten jarraitzea. Geroago zelulak demokrazia burgeseko egoeran erabilgarriak ez zirela esan zuen, Italiari erreferentzia eginez... Honi aurre egiteko Gramsci-k Lenin-ek berak Komintern-aren III. Biltzarrean emandako hitzaldia ahotara ekarri zuen, non mendebaldeko Alderdi Komunistak ere zelulen arabera antolatu behar zirela azaldu zuen (ez nahastu sindikatueta eta masa-antolakundeetan zelulak sortzeko zuzentarauekin). Orduan Bordiga-k hau “aurkikuntza” bat zela (bordigisten batek hau “asmakizuna” zela ere esan zuen) eta baliogarria ez zela esan zuen, Lenin-ek hitzaldi hori aurreko Biltzarretan argi geratu ez zelako preseski eman zuenean. Bordiga, guztiz garaituta, Lenin-en kontrakarrek asebate ez zutela esaten eta zelulak oportunistoaren aurkako erabateko konponbidea ez zirela aitzakitza hartzen amaitu zuen. Azken finean, zelulen auzia antolakuntzazkoa izatetik haratago, auzi politikoa zen.

*“Zelulei buruzko paragrafo hau guztia sen onik gabeko eta ikuspegi historikoaren funtsik gabeko tentelkeria mordoa da. Egiatan, Esteka-Batzordeak Alderdi Komunistari buruz duen ikuskera, ikuskera atzeratzailea da, kapitalismoaren hasierako garaiari dagokiona; ikuskera leninista, aldiz, zelulen antolaketa-sisteman islatzen den bezala, fase inperialistaren berezko ikuskera da, hau da, iraultza antolatzen den fasearena.”*

*Alderdia desbideratze antileninistak borrokatuz indartzen da (1925) – Gramsci*

Baina bordigismoak eragindako nahaspila ez zen nazio-mailakoa soilik, baizik eta nazioartekoa ere. Eta ez da harritzekoa, Bordiga-ren ustez Alderdi Komunistak frakzioetan banatzea eta hauek haien artean eta Komintern-aren aurka borrokatzea araua baitzen (batez ere norbera denean hori egiten aritzen dena), beste behin boltxebismoarekin aurkakotasunean dagoena.

*“Zentzu honetan, soilik esan behar da espiritu internazionalista ez dela asko praktikatzen nazioarteko elkartasunaren zentzu orokorrean. Hau Alderdi Sozialistan zegoen egoera zen eta gure kalterako Liornako Biltzarrean islatu zena. Neurri batean beste forma batzuen pean iraun zuen Bordiga burkideak bultzatutako joerarekin, ustezko “italiar ezker” baten jarraitzaile deitzean noblezia titulu bereziak aldarrikatzen zituenak. (...) Baina gure Alderdiaren ahulezia nagusia Lenin-ek hirugarren puntuan adierazitakoa da: keinu iraultzaileekiko eta azaleko esaldi “gorriekiko” gustua da ezaugarririk garrantzitsuena, ez Bordiga berarena, baizik eta jarraitzen omen duten gizabanakoena.”*

*Gure Alderdiaren barne-egoera eta hurrengo Biltzarrearen zereginak (1925) – Gramsci*

Gramsci-ren ustez, bordigismoaren oinarria zen, alde batetik, Italian behargin-klasea herri langilearen gutxiengoa izatea eta nagusiki iparraldean egotea, eta bestetik, burgesia ttipiaren infiltrazioa, kapitalismoaren aurkako interesak izan arren borroka bukaerara arte eraman nahi ez zuenak. Hau Lenin-ek ‘ “Ezkerkeria”, haur-gaixotasuna komunismoan’ lanean adierazitako egoerak indartu zuen: Turati bat dagoenean, eta haren aurka borrokatzen ez duen Serrati bat, normala da Bordiga bat agertzea. Baina bata eta bestea jada ez daudenean, zer egiten du Bordiga batek hor? – galdetzen du Gramsci-k.

*“Bistan denez, egoera nazionalaren elementua nagusi zen Bordiga burkidearen formakuntza politikoan, eta harengan ezkortasun egoera iraunkor bat gauzatu zuen proletalgoak eta bere alderdiak taktika politiko oso sektario bat aplikatu gabe ideologia burges ttipiaren infiltrazioetatik immuneak ateratzeko aukeraren inguruan, ezinezkoa egiten zuenak boltxebismoak ezaugarritzen duten bi printzipioak ezartzea eta gauzatzea: beharginen eta nekazarien arteko aliantza eta proletalgoaren hegemonia mugimendu iraultzaile antikapitalistan. Gure alderdiaren ahulezia hauei aurre egiteko hartu beharreko ildoak boltxebizazioaren aldeko borroka da. Ekin beharreko ekintzak nagusiki ideologikoa izan behar du, baina politika bihurtu behar da ezker muturrari dagokionez, hots, Bordiga burkideak ordezkatzeko duen joera, frakzionalismo ezkututik ezinbestean frakzionalismo irekira igaroko dena eta Biltzarrean Nazioartekoaren zuzendaritza politikoa aldatzen saiatuko dena.”*

*Gure Alderdiaren barne-egoera eta hurrengo Biltzarrearen zereginak (1925) – Gramsci*

Ekainean, hilabeteetan zehar ukatzen ibili ostean, Bordiga-k zuzendutako “Ezkerraren Esteka-Batzordea” deitutako frakzioa existitzen zela publiko egin zuten L’Unita-ri bidalitako gutun batean. Manifestuak bere sinadura ez zeraman arren, hurrengo egunean onartu egin zuen honen parte zela (inor ere harritu ez zuena) baina ez zuela sinatu “praktikotasunagatik” (hots, komenigarritasunagatik). Gainera, kexu zen PCIko zuzendaritzak ahotsa “aldeetako bati” soilik emateagatik eta bere ahotan esan ez zuena ipintzentzogatik! “Frakzio-Batzordearen” (Gramsci-k hala deituta) asmoa Alderdiaren hurrengo Biltzarrerako eman beharreko eztabaida desbideratzea eta bere helburu zatitzaileak elikatzeko erabiltzea zen, zuzenean PCItik eta Komintern-atik kanpo eta aurka kokatzen zuenak. Bordiga-k PCIko zuzendaritza “giroa pozoitzeaz” salatzera iritsi zen haien laido eta gezurrei aurre egiteagatik. Komintern-ak frakzio hau kondenatu eta bere desegitea agindu zuen.

Gutun honetan bordigistek Alderdiaren inguruko ikuskera antileninisten beste puntu garrantzitsu bat aldarrikatu zuten: langileriaren “sintesi” bat izaterarena, eta ez klasearen parte bat, kontzienteena eta diziplinatuen zehazki.

*“Leninismoaren doktrinaren arabera, Alderdi Komunista proletalgoaren abangoardia da eta, beraz, klase jakin bateko parterik aurreratuena, eta klase horretakoa bakarrik. Jakina, Alderdian beste elementu sozial batzuk ere sar daitezke (intelektualak eta nekazariak), baina argi eta garbi geratu behar da Alderdia organikoki proletalgoaren parte bat dela. Esteka-Batzordearen arabera, Alderdia ez da klase baten parte bat, baizik eta proletarioen, nekazarien, klase burgesaren desertoreen eta baita ere beste batzuen (hau eta abar oso misterioetsua da “tesietan”) “sintesi” bat.*

*Esteka-Batzordearentzat Alderdia, beraz, antolakunde interklasista bat da, inolaz ere sintetizatu ezin daitekeen interesen sintesi bat; “pastiche” original hau marxismotik pasarazten saiatzen da, noski.”*

*Alderdia desbideratze antileninistak borrokatuz indartzen da (1925) – Gramsci*

Gramsci-k onartzen zuen intelektualak beharrezkoak zirela behargin-mugimenduan klase-kontzientzia iraultzailea sarrarazteko, kapitalismoa gainditzeko botere politikoa eskuratzearena, bat-batean garatzen den ideologia sindikalista ordeztuz. Baina klase gisa langileria da iraultzaile bilakatzen dena bere mota berriko abangoardia-Alderdiaren bitartez.

*“Ikuskera hau beharginek duten gaitasunari dagokionez ezkortasun handiaz dago bustita. Intelektualak soilik izan daitezke “benetan” iraultzaile komunistak, intelektualak soilik izan daitezke “gizaki politikoak”. Beharginak beharginak dira eta ezin diote izateari utzi kapitalismoak zapaltzen dituen bitartean: zapalkuntza kapitalistaren pean behargina ezin da erabat garatu, ezin da espiritu korporatibo estutik atera. Zer da orduan Alderdia? Buruzagien talde mugatua soilik (kasu honetan Esteka-Batzordea soilik), masen interesak eta asmo orokorrak “islatzen” eta “sintetizatzen” dituenak, baita Alderdiarenak ere.”*

*Alderdia desbideratze antileninistak borrokatuz indartzen da (1925) – Gramsci*

Gramsci-arentzat, ordea, beharginak gizabanako politiko eta sozialismoaren teoriko gisa sartzen ziren Alderdi Komunistan, eta honen baitako jardueraren bitartez etengabe garatu mugimendu iraultzailearen buruzagi bilakatzeraino (ez sindikatuan bezala, non langile gisa soilik sartzen ziren). Bordiga-ren ikuskera intelektual burges ttipien talde txikietako ikuskera zen, behargin-klasea gutxiago eta bere burua askatzeko ezgai, iraultzaren objektu eta ez subjektu gisa ikusten dutenak.

*“Parisko Komunara arte “Alderdia klase-borrokak eragindako banakako eta taldeko bulkadak sintetizatzen eta bateratzen dituen organoa dela” esan zitekeen, hau da, Alderdia behargin-klasearen aurrerapenak erregistratzera eta propaganda ideologikoko lana egitera mugatzen dela; baina gaur egun ez gaude 1848an, gaur egun masa-mugimendu iraultzaile sakon eta zabal bat dago, eta Alderdiak masak gidatzen ditu, klase-borroka zuzentzen du, eta ez da mugatzen akta jasotzera. Nahiko “originala” da “ezkertiarzat” hartzea hain ikuskera atzeratzaile eta atzerakoia.”*

*Alderdia desbideratze antileninistak borrokatuz indartzen da (1925) – Gramsci*

Hainbeste berritsukeria eta demagogia jasan eta gero, Gramsci-k Bordiga-ren frakzioaren gutunaren inguruko iritzi orokorrarekin amaitu zuen bere erantzuna:

*“Dokumentu honetan ez dago ezer berririk ezta originalik ere. Marxismoaren akats eta desbideratze zaharren mukuru astun bat da, “originaltasunak” iruditu daitezkeenak soilik behargin-mugimenduaren historia ezagutzen ez duenari. Dokumentu honetan txunditzen duena ez da hainbeste hanka-sartze politikoa, baizik eta idatzi duenaren gainbehera intelektuala.”*

*Alderdia desbideratze antileninistak borrokatuz indartzen da (1925) – Gramsci*

Eztabaida guzti hauen ostean, hauek “historioki jada irabazita” zeudela jakin arren, argi eta garbi geratu zen Gramsci-rentzat ezin zela utzi PCI berriro Bordiga eta bere “apostolu” taldearen eskuetan erortzea:

*“Baieztatu egiten dugu Erdiguneko Batzordeak jarraitutako taktikak soilik, azken bi urteetako munduko biltzarretako ebazpenekin adostasunean, ahalbidetu diola modu errealean planteatzea Italian behargin-klasearen alderdia sortzearen arazoa masa-alderdi gisa, eta ez masetatik erabat isolatuta dagoen sekta gisa, fraseologia iraultzaile huts baten errepikapenean fosilizatutako sekta gisa. Are gehiago, baieztatu egiten dugu taktika “bordigiarretara” itzultzeak lortu dugun guztia berehala galtzea ekarriko ligukeela, eta ondorio larrienak izango lituzkeela ez bakarrik alderdiarentzat, baizik eta behargin-klasearentzat ere.*

*Antolakunde sektario “bordigiarren” eta hondamendi-egoeran dauden formazio kontrairaultzaileen (Maximalistak, Unitaristak, Aventinoarrak eta antzekoak) artean kokatuta, behargin-klasea pasibitatean, inertzian, desintegrazioan eroriko litzateke, zeinetatik guk berreskuratu egin dugun.”*

*Alderdiaren Erdiguneko Batzordearen funtzionamenduari buruz (1925) – Gramsci*

Gramsci, Togliatti-rekin batera, PCIren III. Biltzarrerako tesiak idazten hasi zen: hauetan Italiako klase-borrokaren historiaren eta egoeraren azterketa zehatza, Alderdiaren izaera, zelulen auzia, behargin eta nekazarien arteko aliantza eta gehiengoa irabaztea bezalako gaiak jorratzen ziren. Bordiga eta bere jarraitzaileekin behin baino gehiagotan bildu ondoren, honek bere tesi propioak aurkeztuko zituela adierazi zion Gramsci-ri. Biltzarre honetara joango ziren ordezkariak hautatzeko 2 eta 3 mila bileren artean egin ziren, eta eskualdetako 100 biltzar baino gehiago, azkenean 60 bat aukeratuz.

## MARXISTA-LENINISTEN GARAIPENA LYON-EN

1926. urteko urtarrilaren amaieran PCIren III. Biltzarrea egin zen Lyon-en, Frantziako hirian, klandestinitateko egoera zela eta. Horregatik, ‘Lyon-eko Biltzarrea’ bezala da ezaguna. Honetan, militantziari zuzenean aukeratzeko aukera eman zitzaion lehena, buruz buru egin zuten aurka PCIko zuzendaritza marxista-leninistaren eta Bordiga-ren frakzio estremistaren arteko tesiak. Hasi bezain laster bordigistek mozio bat aurkeztu zuten Biltzarrean hartuko ziren erabakiak baliogabetzeko asmoz, hau prestatzeko hainbesteko ahaleginen ondoren aho batez ukatu egin zena. Biltzarrean zehar ikusi ahal izan zenez, benetako iraultzaile komunistek beren lana egin ahala, bordigisten indarra gainbeheran joan zen, haietako batzuk Gramsci eta besteen aldera ere igaroz.

‘Italiar egoera eta PCIren zereginak’ lanean (Lyon-eko tesiak) Gramsci-k, Italiako klase-borrokaren historiaren, faxismoaren ezaugarritzearen eta Alderdi Komunistaren oinarrien azalpena eta gero, bordigismoaren kritikari ekin zion:

*“27. Ideologia marxista eta leninistaren ezker-desbideratze arriskua dago halaber, alderdiaren jatorriari eta herrialdearen egoera orokorrari lotuta. Bordiga kideak gidatutako muturreko joerak ordezkatzeko du. Ezker muturrak ideologia berezi batekin erreakzionatu zuen, hau da, marxismoaren eta leninismoaren aurkakoa den alderdiaren izaeraren, bere funtzioaren eta bere taktikaren ikuskera batekin:*

*a) ezker muturrak alderdia, bere eduki soziala gutxietsiz edo baztertuz, behargin-klasearen “organo” gisa definitzen du, elementu heterogeneoen sintesiaren bidez eratzen dena. Alderdia, aldiz, behargin-klasearen “parte” bat dela azpimarratuz definitu behar da. Akatsa Alderdiaren definizioan antolaketa-arazoak eta arazo taktikoak oker formulatzera darama;*

*b) ezker muturrarentzat alderdiaren eginkizuna ez da une oro klasea gidatzea, egoera objektiboaren aldaketa guztien bitartez harekin harremana mantentzen saiatuz, baizik eta masa gidatzeko prestatutako koadroak sortzea, egoeraren garapenak alderdiarengana hurbiltarazten duenean, hark finkatutako programa- eta printzipio-kokapenak onartaraziz;*

*c) taktikari dagokionez, ezker muturrak dio hori ez dela egoera objektiboari eta masen kokapenari dagokienez zehaztu behar, biztanleria langilearen geruza zabalenean etengabeko harremana mantenduz beti errealtateari atxikitzen zaion eran, baizik eta kezka formalistetan oinarrituta definitu behar dela. (...) taktikari kanpo-izaerako muga zurrun eta formalak ezarriz (antolaketa-eremuan: “banakako atxikimendua”, hots, “bat-egiteak” baztertzea, baldintza jakin batzuetan, hala ere, horiek oso bitarteko eraginkorrak izan daitezkeenean alderdiak bere eragina zabal dezan; eremu politikoan: gehiengoaren lorpenaren arazoaren terminoak estaltzea, fronte bakar sindikala eta ez politikoa, inolako desberdintzerik ez demokraziaren aurka borrokatzeko eratan, antolakunde demokratiko kontrairaultzaileei masen atxikimendu-mailaren arabera eta mehatxu atzerakoi baten larritasun eta hurbiltasunaren arabera; behargin eta nekazarien gobernuaren kontsigna arbuiatzea). Beraz, masa-mugimenduen egoera aztertzerik jotzen da kezka formalista eta sektarioetan oinarrituta ondorioztatutako ildo bat kontrolatzeko soilik: alderdiaren politikaren zehaztapenean ez da inoiz elementu partikularra kontuan hartzen; gure ikerketa politikoaren*

*metodoari (dialektikari) berezkoa zaion ikuspegi bateratu eta osoa hausten da; alderdiaren jarduerak eta haren kontsignek eraginkortasuna eta balioa galtzen dute, propaganda hutseko jarduera eta kontsignetara murriztuz.*

*Alderdiaren pasibitate politikoa kokapen horren ondorio saihestezina da. Haren alde bat, iraganean, “abstentzionismoa” izan zen, ezkerreko estremismoa eta maximalismoa eskuineko desbideratzeetara hurbiltzea ahalbidetzen duenak. Eskuineko joerak bezala, behargin-masak bere kabuz masa zabalak, uneoro haiei lotuta mantentzeko ahaleginean, gidatzeko gai den klase-alderdi bat antolatzeko aukeraren inguruko eszeptizismo baten adierazpena da.”*

*Italiar egoera eta PCIren zereginak (1926) – Gramsci*

Komintern-aren ildoren defentsa egin ostean, Gramsci-k zelulen auzia jorratzera igaro zen:

*“29. (...) Alderdiaren antolaketa ekoizpenaren oinarrian eraikitzen duen printzipioaren kontrako arrazoi guztiak proletalgoarenak ez diren klaseei lotuta dauden ikusmoldeetatik abiatzen dira, “ezker muturrekoak” direla dioten kide eta taldeek defendatzen dituzten arren. Beharginaren eta behargin komunistaren gaitasun iraultzaileen iritzi ezkor batean oinarritzen dira, eta intelektual burges ttipiaren espiritu antiproletarioa adierazten dute, lurraren gatz delako uste duenak eta beharginen nahasmendu sozialerako tresna materiala, eta ez iraultzaren protagonista kontziente eta argia, ikusten duenak.”*

*Italiar egoera eta PCIren zereginak (1926) – Gramsci*

Gramsci-k frakzionalismoaren aurka eta barne-demokraziaren alde egin zuen, zentralismo demokratikoaren oinarriak defendatuz. Orduan “Esteka-Batzordeaz” gogoratu zen:

*“33. (...) Italiako Alderdi Komunista sortu duten talde ezberdinen artean desadostasun batzuk daude oraindik, ideologia marxista eta leninista komunaren sakontzea bitartez desagertu behar direnak. Ezker muturreko ideologia antimarxistaren aldekoen artean bakarrik mantendu da luzaroan izaera frakzionistako homogeneotasun eta elkartasun bat. Are gehiago, “Esteka-Batzordea” delakoaren sorrerarekin, frakzionismo larbatutik frakzio-borroka irekira pasatzeko ahalegina egin zen. Bere indarrak banatzeko ahalegin negargarri honen aurrean alderdiak izan duen erantzunaren zabalatasuna, arlo honetan, sozialdemokraziaren ohituretara itzultzeko ahalegin oro porrotera kondenatuta dagoenaren frogarik sinesgarriena da.”*

*Italiar egoera eta PCIren zereginak (1926) – Gramsci*

Alderdiaren barne-funtzionamenduan militantziaren ekimena sustatu eta lan ilegala egin behar zela esan eta gero, Gramsci-k Alderdiaren gidaritza-egitekoak aztertu zituen:

*“36. Alderdiak behargin-klasea zuzentzen duela dioen printzipioa ez da mekanikoki ulertu behar. Ez da uste izan behar alderdiak behargin-klasea kanpoko inposaketa autoritario baten bidez zuzendu dezakeenik; horrek ez du balio ez boterea eskuratu aurreko aldirako, ezta ondoren ere. Printzipio honen interpretazio mekaniko baten akatsa, ezker muturreko desbideratze ideologikoen ondorio posible bezala borrokatu behar da italiar alderdian; desbideratze hauek, izatez, alderdiaren gehiegizko balioztapen formal arbitrario batera daramate klasearen gidatze egitekoari dagokionez.*

*Klasea zuzentzeko gaitasuna alderdia haren organo iraultzailea “izendatzearekin” lotuta ez dagoela baieztatzen dugu, baizik eta “benetan” lortzearekin, behargin-klasearen parte gisa, klaseko sektore guztiekin lotzea eta masari baldintza objektiboek lagundutako eta nahi den norabidean mugimendu bat ematea. Alderdiak masen arteko bere ekintzaren ondorioz bakarrik lortu ahal izango du “bere” alderdia bezala onartzea (gehiengoaren lorpena), eta soilik baldintza hau bete ondoren baiezta dezake behagin-klaseak jarraitzen duela. Masen arteko ekintza honen eskakizunak alderdiko edozein “patriotismoaren” ginetik daude.”*

*Italiar egoera eta PCIren zereginak (1926) – Gramsci*

Alderdiaren abangoardia-papera eta masa-antolakundeekin harremana aztertu ondoren, sindikatuetakoa lana azpimarratuz, borroka partzialen eta berehalako aldarrikapenen erabilera iraultzailea aztertzeraz igaro zen:

*“39. (...) Alderdiak borrokatzen du ikusmoldea, zeinaren arabera ekintza partzialak babesteari edo haietan parte hartzeari uko egin behar dion, langileriari interesatzen zaizkion arazoak erregimen kapitalista eraistearrekin eta indar antikapitalista guztien ekintza orokorrarekin bakarrik konpon daitezkelako. Jakitun da inperialismoaren garaian eta erregimen kapitalista eraitsi aurretik ezin dela langileen egoera serioa eta modu iraunkorrean hobetu. Hala ere, berehalako aldarrikapenen programa baten asaldura eta borroka partzialei babesa, masa zabalak irabazteko eta kapitalaren aurka mugiarazteko modu bakarra dira. Bestalde, behargin-mailen asaldura edo garaipen orok berehalako aldarrikapenen esparruan kapitalismoaren krisia zorrotzago bihurtzen du eta haren beherakada subjektiboki bizkortzen du, egun bere boterea oinarritzen duen oreka ekonomiko ezegonkorra urratzen duen heinean.”*

*Italiar egoera eta PCIren zereginak (1926) – Gramsci*

Hau ‘langileriaren fronte bakarrarekin’ lotzen zuen Gramsci-k, honen izaera politikoa azpimarratuz, antikapitalista eta antifaxista, eta nekazariak ere barnebilduko zituen. Masa-borroka zuzentzeko zereginen erdibideko konponbideen beharra ere aldarrikatu zuen alderdi burgesei mozorroa kentzeko. Azkenik ‘behargin eta nekazarien Gobernu’ aldarrikatzearen beharra adierazi zuen, baina argi utziz hau proletarioaren diktaduraren aldeko atariko borroka zela.

Biltzarrearen amaierako bozketak hurrengo emaitza utzi zuen: %81,1eko parte-hartzearekin (egoera klandestinoaren ondorioz), Gramsci-ren tesiek %90,8ko babesa izan zuten, Bordiga-renek %9,2a jaso zuten bitartean. Aukeratutako PCIko Erdiguneko Batzorde berri osoa ildo marxista-leninistaren aldekoa zen, bordigistak honetatik at geldituz. Gramsci Alderdiko Idazkari Nagusi hautatu zuten. Biltzarrea eta gero, Gramsci-k honen inguruko txostena idatzi zuen, non honetan emandako eztabaiden eta hartutako erabakien laburpena egin zuen:

*“Egiazki biltzarrean erresistentziak egon ziren eta gertaera gorena, kide guztiek gogoratzen dutena, Esteka-Batzordearen eraketa izan zen, hau da, alderdiaren zuzendaritzan EBarri aurre egingo zion frakzio antolatua bat eratze saiakera. Egiantan esteka-batzordearen eraketa ezker muturraren sakabanaketaren sintomarik esanguratsuena izan zen, zeinak, alderdiaren lerroetan pixkanaka eremua galtzen ari zela sentitzen zuenez, geratzen zitzaizkion indar apurrak suspertzen saiatu*



*baitzen, errebelamendu-ekintza zaratatsu batekin. Nabarmena da ezker muturrak jasandako porrot ideologiko eta politikoaren ondoren, jada biltzarrea prestatze-garaian, bere nukleorik erresistenteenak gero eta alderdiarekiko jarrera sektarioagoak eta etsaitasunezkoagoak hartu izana, zeinarengandik egunetik egunera urrunago eta bananduago sentitzen zen. Taldekide hauek, ez zuten soilik alderdiaren eta Nazioartekoaren ideologiaren eta politikaren puntu zehatz batzuen gaineko aurkaritza setatsuenaren eremuan mantentzen jarraitu, baizik eta puntu guztien gaineko aurkaritza-arrazoiak bilatu zituzten sistematikoki, blokean aurkeztu ahal izateko, ia alderdi gisa alderdian. Erraza da imajinatzea antzeko jarrera batetik abiatuta biltzarrearen garapenean zehar halako jarrera teoriko eta praktikoetara iritsi behar zela, non dramatikoa, alderdia mugitu behar den egoera orokorraren isla zena, nekez bereizten zen nolabaiteko jokabide batetik, klase proletarioaren alde benetan borrokatu eta sakrifikatu zirenenei paratze gisa agertzen zitzaiena.”*

*Alderdiko bizitzaren bost urte (1926) – Gramsci*

Biltzarrean bordigistek Gramsci Marx eta Engels-en materialismo historikoaren ikuskera ordez Benedetto Croce filosofo burgesarena izateaz salatu zuten. Biltzarreak, ordea, Alderdiaren baitan sozialismo zientifikoaren teoriaren maila igotzea eta ez kideen garapen intelektualaren datu biografikoetan sakontzea erabaki zuen.

*“Esan beharra dago oposizioa ez zela saiatu EBak biltzarrerako tesietan egindako italiar egoeraren azterketari aurre egiten, ez taktika bat ezartzera eramango zuen beste azterketarik, ez printzipioko aurkaritza bat justifikatuko zuen zuzenketa partzialik. Aitzitik, ezker muturraren kokapen faltsuaren ezaugarria izan zen bere behaketak eta kritikak inoiz ez direla oinarritu indar erlazioen eta italiar gizartearen baldintza orokorren azterketa sakon eta ezta azalekoetan ere. Horrela argi geratu zen ezker muturraren berezko metodoa, eta berak dialektikoa dela dioena, ez dela Marx-en dialektika materialistaren metodoa, filosofia aurre-marxistaren eta are aurre-hegeliarraren berezko dialektika kontzeptualaren metodo zaharra baizik.”*

*Alderdiko bizitzaren bost urte (1926) – Gramsci*

Honen aurrean, bordigistek Alderdia gidatzeko “usaimen” berezi eta misterioitsu bat izatea baieztatu zuten, Biltzarreak zeharo arriskutsu eta hondagarritzat jo zuena.

*“Biltzarrearen osoko bilkuretan, ezker muturreko oposizioa izan zen oposizio ofizial eta deklaratu bakarra. Oposizioak auzi sindikalari buruz hartutako jarrera, EB zaharreko bi kideek hartutakoa, bere izarea inpultsiboa eta inprobisaziozkoagatik, histerismo politikoko fenomeno indibidualtzat hartu behar da, eta ez zentzu sistematikoko aurkaritzatzat. (...) Hizlari batek esan zuen sindikatua historikoki gaindituta dagoela, eta, beraz, alderdiaren masa-ekintza bakarra lantegietan egiten dena izan behar dela. Tesi hau, infantilismo estremistaren kokapen zentzugabeenetara lotua, biltzarreak garbi eta kementsuki arbuia zuen.”*

*Alderdiko bizitzaren bost urte (1926) – Gramsci*

Sindikatuaren auzian, Italiako Lanaren Konfederazio Orokorra indartu eta masen bateratzea sustatzeari bordigistek zentzugabekeriak kontrajarri zizkieten, sindikatuak oportunistak izateagatik utzi behar zirela edo Gramsci “proudhoniarra” zela bezala.

*“Ezker muturraren oposizioa funtsezko bi gidalerrok gidatzen zuten: lehena, funtsean biltzarreko izaera zuena, EBak eta biltzarrearen gehiengoak sostengatutako lantegi-antolakundeen taktika L’Ordine Nuovo-ren ikuskerarekin lotuta dagoela erakustera jotzen zuen, ezker muturraren arabera proudhoniarra eta ez marxista zen astekaria; bigarrena ezker muturrak leninismoari argi eta garbi aurre egiten dion printzipiozko auziari lotuta dago: leninismoak dio alderdiak klasea masa-antolakundeen bitartez gidatzen duela eta ondorioz alderdiaren funtsezko zereginetako bat masa-antolakundeak garatzea dela; ezker muturrarentzat, ordea, arazo hau ez da existitzen eta alderdiari alde batetik hondamendirik okerrenak eta bestetik abenturakeria arriskutsuenetara eraman dezaketen funtzioak ematen zaizkio.”*

*Alderdiko bizitzaren bost urte (1926) – Gramsci*

Nekazal auzia aztertzerakoan, nekazariak antolatzeari ekitea erabaki zen Elizaren eta faxisten eraginaz askatzeko, barne-kolonialismoaren ondorioz hegoaldearen eta irlen egoera berezia kontuan hartuz.

*“Arazo multzo guzti honi buruz, ezker muturreko oposizioak ez zuen txantxak eta betiko leloak esatea besterik lortu. Bere funtsezko kokapena aurretiaz arazo zehatz hauek existitzen direla ukatzea izan zen, inolako azterketa edo frogapenik gabe, potentziala bada ere. Are gehiago, esan daiteke preseski nekazari-auziari dagokionez, ezker muturraren ikuskeraren benetako funtsa agertu zela, helburu iraultzaileen gauzapena baldintza objektibo orokorren garapen hutsetik mekanikoki itxaroten duen korporatibismoarena. Ikuskera hori, lehen esan dugun bezala, biltzarrearen gehiengo zabalak zeharo arbuiatu zuen.”*

*Alderdiko bizitzaren bost urte (1926) – Gramsci*

Amaieran, Gramsci-k Biltzarrea mugimendu iraultzailerako funtsezkoak ziren hainbat arazoez arduratu ez zela idatzi zuen, emakumezkoaren esparruan antolakuntza bezala (Bordiga honetatik gertuago egon zen unea familia patriarkarra gizadiaren oinarri gisa ipini zuenean izan zen).

Komintern-aren Bilera Betearazle hedatuan Bordiga-k PCIko III. Biltzarrearen aurkako helegitea eta frakzioak eratu ahal izateko mozioa aurkeztu zituen. Komintern-ak biak baztertu zituen.

Honetan, berriro ere langileriaren fronte bakarraren eta behargin eta nekazarien Gobernuaren aurka hitz egin ostean, Nazioarteko Komunistaren baitako “terrorea” salatu zuen eta Trotski-rekin guztiz lerrokatu zen.

## TROTSKISMOAREKIKO JARRERA

1925. urteko otsailean Bordiga-k Trotski-ren aldeko gutuna idatzi zuen, non honek Lenin hil ostean bere pentsamendua berrikusteko argitaratutako ‘Urriko iraultzaren irakaspenak’ hitzaurrean plazaratutako manipulazioak defendatu zituen eta nabarmenegiak ziren gezurrak konpontzen saiatu zen. Alderdi boltxebike osoak leninismoa trotskismoagatik ordeztzeko saiakera hau gaitzetsi zuen. Bordiga-k berak Komintern-aren zuzendaritzaren onespeneraren menpe ipini zuen honen argitaratzea. Baina honetaz eztabaidatu behar zen bilera hedatua iristean, Bordiga-k parte hartzeari uko egin zion.

*“Zentzugabea eta deitoragarria da ikuspuntu guztietatik Bordiga burkideak Trotski auziaren inguruko eztabaidan pertsonalki parte hartu nahi ez izana, gaiari buruzko material guztia zuzenean ezagutu nahi ez izana, bere iritziak eta informazioak nazioarteko eztabaida batean azaldu nahi ez izana. Egiaz jarrera horiekin ezin da erakutsi beharrezko nolakotasuna eta dohainak dituenik borroka bat planteatzeko, praktikoki emaitza gisa aldaketa bat izan beharko lukeena, ez bakarrik zuzendaritzan, baizik eta baita gizabanakoena ere Nazioarteko Komunistaren zuzendaritzan.”*

*Gure Alderdiaren barne-egoera eta hurrengo Biltzarrearen zereginak (1925) – Gramsci*

Uztailean, Bordiga-ren “Esteka-Batzordea” frakzioarekin eztabaidaren erdian, gutun hau ‘L’Unita’ PCIko aldizkarian argitaratu zen. Gramsci-k azpimarratu egin zuen Bordiga-ren jarraitzaileek, Trotski-ren kasuan bezala, egiten zuten pertsonalitateari kultura. Txundigarriki, Bordiga-rentzat “endekapena” ez zen Lenin-en heriotza eta gero gertatu, Trotski-k zioen moduan, baizik eta Komintern-aren III. Biltzarrean jada... Bere “Lyon-eko tesietan” ere Trotski ez bairik gabe zuzen zegoela idatzi zuen.

*“Normala da beti Bordiga aipatzea. Paragrafo hau guztia Livorno aurreko Serrati-ren artikulua batetik kalkatua dirudi, izen aldaketa soilarekin. Orduan ere “indibidualismoaz” hitz egiten zen, beste modu batera definitzen zaila izango litzatekeen joera baten adierazpentzat gizabanako bat hartzean datzan egitate sinple eta erabilgarritasun praktikokoa kontzepzio indibidualistarekin nahastuz, Bordiga burkidean berezkoa dena, Trotski-ren kasuan bezala, eta Lenin-en heriotzarekin kontzepzio taktiko eta estrategiko osoa berrikusi eta aldatu behar denaren baieztapenean adierazten dena, jada bermerik ez dagoelako, etab.”*

*Puntuak i-en gainean (1925) – Gramsci*

Gramsci-k, bestalde, hasiera batean propaganda trotskistaren gezurrak sinetsi zituen: 1924ko gutun batean ikusi daitekeenez, Trotski gehienetan mentxebikeekin kokatu zela onartu arren, boltxebikeek defendatutako ‘behargin eta nekazarien diktadura demokratikoak’ kapitalismoa ezarri nahi zuela, Lenin-ek Trotski-ren “iraultza etengabearen” ikuspuntua bereganatu zuela, Urriko iraultza Estatu-kolpea izan zela, Trotski-k burokrazia borrokatzen zuela, eta abar. esaten zuen. Baina Gramsci-k Komintern-aren baitako eztabaidei esker bere hasierako uste okerrak gainditu eta honen aurka kokatu zen.

1926ko urrian PCIko zuzendaritzaren aginduz Gramsci-k gutun bat idatzi zion Batasun Sobietikoko Alderdi Komunista (boltxebike)aren Erdiguneko Batzordeari, zeinetan honi babes erakutsi eta Trotski, Zinoviev eta Kamenev-ek osatutako oposizio-blokeari Alderdiaren diziplina errespetatzeko eta batasuna mantentzeko eskatu zien.

*“Erraza da eremu honetan demagogia egitea, eta zaila ez egitea auzia espiritu korporatibistaren eta ez leninismoaren terminoetan planteatu denean, kokapen zehatz batean ipintzen den proletalgoaren hegemoniaren doktrinan eta ez beste batean.*

*Hau da guretzat zuen eztabaidaren funtsezko elementua, eta hor datza oposizioen blokeko akatsen erroa eta haien jardueran dauden ezkutuko arriskuen jatorria. Oposizioen blokearen ideologian eta praktikan sozialdemokraziaren eta sindikalismoaren tradizio osoa berpizten da, orain arte mendebaldeko proletalgoari klase agintarian antolatzea eragotzi egin dion tradizioa.”*

*Gutuna ESSBko Alderdi Komunistaren Erdiguneko Batzordeari (1926) – Gramsci*

Gramsci-k Togliatti-ri idatzi zion hau Alderdi boltxebikeari emateko eskatuz, baina honek arrazoirik gabeko kritika batzuk eginaz erantzun zion. Gramsci-k berriro ere idatzi zion Togliatti-ri bere gutuna ulertu ez zuela esanez eta, “bere arrazoiketa guztia burokratismoz ustelduta” zegoela adierazi ostean, hau argiro Trotski-k sortutako frakzioaren aurkakoa zela esan zion. Azkenean Togliatti-k bere kabuz erabaki zuen gutuna ez ematea.

Azaroan faxismoak oposizioko alderdi poitikoak eta prentsa-askatasuna deuseztatu zituen eta Gramsci atxilotu zuen, parlamentari gisa zuen immunitatea arren, idazten ari zen ‘Zenbait gai hegoaldeko auziari buruz’ artikulua erdizka gelditu zelarik. Hilabete bat geroago Bordiga ere atxilotua izan zen.

Ustica-ko uhartean giltzapetuta egon ondoren (non Bordiga-rekin egon zen) Gramsci Milaneko kartzelara eraman zuten epaitzeko. Han “jarduera konspiratzailez”, “gerra zibila kitzikatzeaz”, “delituaren gorazarreaz” eta “klase-gorrotoa akuilatzeaz” akusatu zuten eta Auzitegi Berezi faxistak 20 urteko espetxe-zigorra ezarri zion. Ministro publikoak “garun hori hogeitaz funtzionatzea galarazi behar dugu” esan zuen. Orduan hasi ziren presondegi ezberdinetan zeharreko bere etengabeko lekualdaketak, gizapetiko baldintzetan eta tratu txarrak jasoz (mediku batek bere egitekoa Gramsci bizirik mantentzea ez zela esatera iritsi zen), torturapeko egoera azken batean.

1929ko urtarrilean, hainbat borroken ondoren, Gramsci-k idazteko eskubidea lortu zuen. Baina kartzelari mussoliniarren zentsura ekiditeko idazkera metaforiko eta korapilatsu bat erabili behar izan zuen (berak “idazteko era ‘kartzelarioa’” deitu zuena), gerora bere pentsamenduaren desitxuraketa zantzarrei bide eman dienak. Nazi-faxistek preso komunisten moralak hausteko erabiltzen zuten ‘Nire bizitza’ liburua, Trotski-ren autobiografia, irakurri ostean Gramsci-k “Trotski faxismoaren puta da” esan zuen eta kritika bat baino gehiago egin zion bere kartzelako koadernoetan.

1930ean Trotski-ren “iraultza etengabearen” teoriaren inguruan idatzi zuen. Teoria honek, Lenin-ek zioenaren aurka, Errusiako iraultzan fase demokratiko-burgesaren beharra ukatzen zuen, non nekazalgoarekin aliantzak garrantzia handia izango zuen, eta zuzenean sozialista izan behar zela

zioen. Gainera, hau emateko lehenik Mendebalde garatuan, Germanian bereziki, iraultza sozialista gertatu behar zela zioen. Aurrerago, ESSBn sozialismoaren eraikuntza ezinezkoa zela esateko erabili zuen. Kasu honetan ‘Ilici’ (Vladimir Ilitx Ulianov) Lenin izango litzateke eta ‘Bronstein’ (Lev Davidovitx Bronstein) Trotski.

*“Ikusi beharko da Bronstein-en mugimenduaren etengabetasunari buruzko teoria ospetsua ez ote den mugimendu- edo maniobra-gerraren teoriaren isla politikoa (...) Kasu honetan esan liteke Bronstein, “mendebaldetarra” bezala aurkezten dena, aldiz, kosmopolita bat zela, hau da, gainazaletik nazionala eta gainazaletik mendebaldetarra edo europarra. Ilici, ordea, sakonki nazionala eta sakonki europarra zen.*

*Bronstein-ek bere memorietan gogoratzen du bere teoriak esan zutela bere ontasuna frogatu zuela... hamabost urteren buruan, eta epigrama horri beste batekin erantzuten dio. Egia esan, bere teoria berez ez zen ona, ez hamabost urte lehenago, ez hamabost urte geroago, Guicciardini-k aipatzen dituen burugorrei gertatzen zaien bezala. Bronstein-ek oro har asmatu zuen, hau da, arrazoi izan zuen aurreikuspen praktikoa orokorragoari dagokionez; lau urteko neskato bati ama izatera iritsiko dela iragartzea bezala da hori, eta gero, benetan ama denean ondorioztatzea: “nik esana dizuet”, gogoratu gabe lau urte zituela neskatoa bortxatu nahi zuela, ama bihurtuko zenaz ziur.”*

*Banako-gizakia eta masa-gizakia (1930) – Gramsci*

Idazki honen amaieran Trotski-ren teoria Rosa (Luxemburg)-en teoriara parekatu zuen. Aurrerago argiago kritikatu zuen bere ekonomizismoa eta bat-batekotasunari gurtza ‘Masen greba, alderdi politikoa eta sindikatuak’ liburuan:

*“Liburuxkan apur bat arinegi eta azaletik teorizatzen dira 1905eko esperientzia historikoak: Rosak ez baitzituen kontuan hartu elementu “boluntarioak” eta antolakuntzakoak, gertaera haietan berak uste baino askoz ere ugariagoak eta eraginkorrak izan zirenak, bere aurreiritzi “ekonomizista” eta espontaneista baten ondorioz. (...) Determinismo ekonomizista sutsu baten forma zen hau, bere efektuak denboran eta espazioan oso azkarrak zirela uste izatearen astungarriarekin; horregatik mistizismo historiko bat zen bere adiera hertsian, nolabaiteko mirariazko distira baten zain zegoena.”*

*Egoeren azterketa. Indar-korrelazioak (1932) – Gramsci*

1932an Trotski-k Errepublika sobietikoan ezarri nahi izan zuen sindikatuen militarizazioa aztertu zuen: Trotski-ren aburuz Estatu sozialista batean sindikatuak ez zeukaten langileen interesak defendatzeko zereginik baina bai helburu ekonomikoak betearaztearenak, eta honetarako Ejertzitza erabili behar zen (errepresiorako ere). Hemen Trotski-ri ‘Leone Davidovi’ deitzen dio:

*“Leone Davidovi-ren joerak lotura estua zuen arazo multzo honekin, eta iruditzen zait harreman hori ez dela behar beste agerian ipini. Haren joeraren funtsezko edukia, ikuspuntu honetatik, borondate “gehiegi” ziurra zen (eta, beraz, arrazionalizatu gabea) bizitza nazionalan industria eta metodo industrialei nagusitasuna emateko, ekoizpenaren diziplina eta ordena kanpoko bitarteko hertsatzaileekin bizkortzeko, ohiturak lanaren beharretara egokitzeko. Bere joerarekin zerikusia*

*zuten arazo guztien planteamendu orokorra dela eta, joera horrek nahitaez bonapartismo forma bat ekarri behar zuen: hortik bere joera zanpatzeko ezinbesteko beharra. Bere kezkek zuzenak ziren, baina bere irtenbide praktikoak sakonki okerrak ziren; bere teoria eta praktikaren arteko desoreka honetan errotzen zen arriskua, gainontzean aurretik jada, 1921ean, agerikoa zen arriskua. Ekoizpenaren eta lanaren antolamenduan hertsapen zuzen eta zeharkakoaren printzipioa bidezkoa da, baina hartu zuen forma okerra zen; eredu militarra aurreiritzi kaltegarri bihurtu zen harengan, eta lanaren ejertzitoak porrota izan ziren.”*

*Ekoizpenaren eta lanaren arrazionalizazioa (1932) – Gramsci*

Urte berean ‘Sozialismoaren eraikuntza herrialde bakar (edo multzo) batean’ inguruko eztabaidari buruz idatzi zuen, honen alde kokatuz. Trotski-k Stalin eta gainontzeko buruzagi boltxebikeak “nazionalistatzat” salatzen zituen, bere ikuskera ekonomista inperialistari jarraiki “mundu osoan” (Mendebaldean batez ere) proletalgoaren diktadurak agindu arte ezinezkoa baitzen sozialismoa inon eraikitzen hastea, eta are gutxiago kapitalismoaren garapen urrikoetan, koloniak edo Errusia bera bezala. Hemen hainbat hitz-gako dago: ‘praktikaren filosofia’ sozialismo zientifikoa da, ‘bere sortzailea’ Marx, ‘bere teoriko handi berriena’ Lenin, ‘gehienak’ boltxebikeak dira, ‘Giuseppe Bessarione’ (Iosif Visarionovitx Jugaxvili) Stalin da eta ‘Leone Davidovici’ Trotski.

*“(…) praktikaren filosofiaren arabera (bere adierazpen politikoan), bere sortzailearen formulazioan jada, baina bereziki bere teoriko handi berrienaren zehaztapenetan, nazioarteko egoera bere alde nazionalen hartu behar da aintzakotzat. (...) Puntu honetan dago, nire ustez, Leone Davidovici eta Bessarione-ren arteko funtsezko desadostasuna, gehiengoaren mugimenduaren interpretatzaile gisa. Nazionalismo salaketak ezdeusak dira gaiaren muinari buruzkoak badira. (...) Nazioarteko izaera duen klase batek, geruza sozial hertsiki nazionalak (intelektualak) eta, askotan, nazionalak baino gutxiago direnak ere, partikulistak eta municipalistak (nekazariak) gidatzen dituen aldetik, “nazionalizatu” beharra dauka zentzu batean, eta zentzu hau gainerakoan ez da oso estua, izan ere, mundu mailako plan baten arabera ekonomia baterako baldintzak eratu baino lehen beharrezkoa baita fase anitz igarotzea, zeinetan eskualde-konbinazioak (nazio multzoenak) askotarikoak izan daitezken. (...) Kontzeptu ez-nazionalak (hau da, herrialde berezi bakoitzari ez dagozkionak) okerrak dira, beren amaierako zetzugabekeriagatik ikusten den bezala: kontzeptu horiek inertzia eta pasibitate eraman dute bi fase ongi bereizitan: 1) lehen fasean, inork ez zuen uste hastera behartuta zegoenik, hau da, bakoitzak pentsatzen zuen hasiz gero isolatuta egongo zela; denak batera mugitzera itxaroten, inor ez zen mugitzen ezta mugimendua antolatzen ere; 2) bigarren fasean beharbada okerragoa da, “napoleonismo” anakroniko eta antinatural moduko bat espero delako (fase historiko guztiak ez baitira era berdinean errepikatzen). Mekanizismo zaharraren forma moderno honen ahulezia teorikoak iraultza etengabearen teoria orokorrak estaltzen ditu, dogma bezala aurkeztutako aurreikuspen generiko bat besterik ez dena, eta bere kabuz suntsitzen dena, faktikoki eta egiazki ez agertzeagatik.”*

*Internazionalismoa eta politika nazionala (1932) – Gramsci*

Nazioarteko Komunistak beti bidali zion Gramsci-ri ahal zuen guztia bere senideen bitartez, eta ESSBn zeuden elizgizon batzuekin elkartrukatzeko proposamena ere egin zuten, baina ez zuten lortu. Baldintzapeko askatasuna lortzeko aukera ere izan zuen baina horretarako faxistek damutzea eskatu zioten eta uko egin zion, zeinaren ondorioz inkomunikatu zuten. Bere espetxealdian Gramsci-k hamaika gaixotasun garatu eta aurretik zituenak okertu zitzaizkion (hortzak galtzea, insomnia, liseriketa-nahasmenduak, biriketako tuberkulosia, arteriosklerosia, Pott-en gaitza...) eta azkenean ospitaleratu behar izan zuten. 1937an, oraindik espetxeratuta zegoela, bertan hil zen.

Bordiga, bere aldetik, 1929an aske geratu zen faxisten aurrean amore ematearen truke. Alderdira bueltatzeko inolako keinurik egin ez bazuen ere, PCIk kanporatu egin zuen trotskismoa babesteagatik. Politika guztiz utzi zuen eta bere estudioan lan egitera mugatu zen: bere gertukoei esaten zien pozik zegoela halako huskerietatik at bizitzeaz eta bere izpiritua lantzeaz. Misterioa da jakitea ea 1932an Trotski Napolira (Bordiga-ren bizitokia zena) italiar faxistei Tokio-Berlin Ardatzarekin kontaktuan ipintzeko eskatzera joan zenean bat egin zuten ala ez... Baina polizia sekretuak jaso zuen 1940 inguruan bere abokatu ohiari esan ziola: “Munduko iraultzaile apartak eta benetakoak bi dira: Hitler eta Mussolinni” inperialismo britaniar eta yankiari aurka egiteagatik eta “Stalin-ek proletargoaren kausa traizionatu duela” hauekin aliatzerakoan. Bere jarraitzaileek Bordiga “Lenin baino leninistagoa” zela esan arren, egiatan Trotski bera baino trotskistagoa izan zela esan dezakegu. Tira, Trotski-k gutxienez ezkutatu egiten zuen nazi-faxismoari bere babesa...

# GRAMSCI-REN ONDAREA ETA BORDIGISMOAREN KOROKAK

Gramsci-k ikusi ez bazuen ere, Komintern-ak VII. Biltzarrean onartutako faxismoaren aurkako Fronte Herrikoien taktikak garaipen handiak eman zizkion Nazioarteko Mugimendu Komunistari. Italian zehazki Askapen Nazionaleko Batzordeetan eta partisauen mugimendu gerrillarian gorpuztu zen, hainbat brigada bere izena eraman zutelarik. Tamalez, garaipena eta gero Togliatti-k (gerora Khrustxov-en “desestalinizazioa” babestu zuenak) ‘Salernoko biraketa’ (iraultza sozialista baztertu eta Estatu burgesan integratzea) ezarri zuen, benetako traizioa izan zena partisa komunistentzat. Hau sozialismorako “bide baketsuaren” estalkiarekin aurkeztu zen, honetarako Gramsci-ren pentsamenduaren desitxuraketaz baliatuz.

Esan daiteke honen ondorioz Gramsci (Marx eta Lenin ondoren), gehien manipulatu izan den teoriko komunista bilakatu dela: sozialdemokratak eta berrikustzaileak, eurokomunistak zein trotskistak, denek maneiatu dute lotsagabeki bere pentsamendua haien aldeko gisa aurkezteko. Gramsci, ordea, marxista-leninista irmoa izan zen, III. Internazionalaren gizonik ziurrena Italian, eta gaur egun benetako komunistek soilik aldarrikatu dezakete haren ekarpen politiko zein teorikoa Sozialismo Zientifikoaren garapenera.

Hil aurretik, baina, Gramsci-k hainbat hausnarketa utzi zituen bordigismoari buruz bere kartzelako koadernoetan.

Gramsci-k determinismo ekonomizista edo gainegiturako gorabehera oro azpiegiturako eragin zuzenaren ondorioz azaltzeko nahikaria (“umekeria primitiboa” deitu zuena) kritikatu zuen, akatsa gertakari historiko gisa ere kontuan hartzen ez duenak, eta ondoren Bordiga-ri buruz esan zuen:

*“Feuerbach-en baieztapena: “Gizakia jaten duena da”, hainbat modutan interpretatu daiteke bere baitan hartuz gero. Interpretazio baldar eta ergela: gizakia da une bakoitzean materialki jaten duena, hau da, elikagaiek berehalako eragin erabakigarria dute bere pentsatzeko moduan. Amadeoren baieztapena gogoratu, zeinaren arabera gizon batek hitzaldi bat eman aurretik zer jan duen jakingo balitz, adibidez, hitzaldia bera hobeto interpretatu liteke. Haurren baieztapena eta zientzia positibo beratik kanpokoa ere, garuna ez baita babaz edo boilurrez elikatzen; aitzitik, elikagaiek garuneko molekulak berreratzen dituzte substantzia homogeen eta asimilagarri bihurtu ondoren, jada garuneko molekulen “izaera bera” potentziala dutenak. Baieztapen hori egiazkoa balitz, historiak bere matrize erabakigarria sukaldaritzan izango luke eta iraultzak bat etorriko lirake masen elikaduraren errotiko aldaketekin.”*

*Ekonomia eta ideologia (1929) – Gramsci*

Ondoren giza-naturaren inguruan hausnartu zuen, hau harreman sozialetan edukita dagoela ondorioztatuz. Honekin lotuta, Lukacs teoriko burges-berrikustzaileari kritika egin zion beste idatzi bateko oharrean (presaka idatzi zituenak), dialektika gizartean bai baina naturan ekiten ez zuela zioenak, harreman honetan lanaren garrantzia baztertuz eta dialektikaren unibertsalitatea ukatuz (Lukacs-ek ‘Kommunismus’ aldizkari ultraezkertiarrean idatzi zuen, zeinetan Borgida-k ere



kolaboratu zuen, haren ildoak “sektakeria mesianikoa eta utopikoa” babesten zuela onartu zuenak Lukacs-ek berak). Hemen aipatzen duen ‘Saiakera Herrikoa’ materialismo historikoari buruzko Bukharin-en lana izango litzateke.

*“Haren baieztapenak naturaren eta gizakiaren arteko dualismoa aurreuposatzen badu, oker dago, erlijioaren eta filosofia greko-kristauaren edota idealismoaren berezkoa den naturaren ikuskeran erortzen delako, ez duenak benetan lortzen gizakia eta natura bateratzea eta harremanetan jartzea hitzez baino. Baina giza-historia naturaren historiatzat ere ulertu behar bada (baita zientziaren historiaren bidez ere), nola izan daiteke dialektika naturatik baztertua? Ziur asko Lukacs, Saiakera Herrikoia teoria barrokoen aurkako erreakzioagatik, aurkakoakatsean erori da, idealismo modu batean.”*

*Kanpo-munduaren objektibitatea (1933) – Gramsci*

Beste idatzi batean, bat-batekotasunaren eta kontzientziaren inguruan gogoeta eginez, azken hau beti agertzen zela esan zuen, ‘berezko’ kontzientzia edo ideologia nagusiaren baitakoa bazen ere. Bat-bateko mugimenduak gidaritza politikoaren bitartez mugimendu iraultzailean txertatzeari errefusa kritikatu zuen, halako jarrerak indar atzerakoiei abantaila ematen ziela esanez, eta Bordigaren teorizismoari buruz esan zuen:

*“Ikusmolde historiko-politiko eskolastiko eta akademikoa, zeinarentzat mugimendu erreala eta duina soilik da ehuneko ehunean konzientea eta alde zurratik xehetasun osoz marratutako plano batek ere zehaztutakoa edo teoria abstraktuari dagokiona (gauza berbera) dena. Baina errealitatean konbinazio bitxiak ugari dira, eta teorikoa da bitxikeria horietan bere teoriaren baieztapena identifikatu behar duena, bizitza historikoaren elementuak hizkuntza teorikora “itzuli” behar dituen, eta ez alderantziz, errealitatea eskema abstraktuaren arabera aurkezteko eskatu. Hori ez da inoiz gertatuko eta, beraz, ikusmolde hori pasibitatearen adierazpen bat besterik ez da.”*

*Bat-batekotasuna eta gidaritza kontzientea (1930) – Gramsci*

Aurrerago, hotsandiko esaldiak eta esapide trumoiitsuak errepikatzea gustoko dituzten hitzontziak kritikatu zituen, Bordiga bezala, iraultzaile ona izateko kudeaketaren, taktikaren eta antolakuntzaren beharra azpimarratuz.

*“Ideia handiak eta formula lausoak. Ideiak handiak dira gauzagarriak diren heinean, hau da, egoerarekiko immanentea den harreman erreala argitzen duten heinean, eta argitzen dute nahimen kolektibo antolatu batek harreman hori erditzen (sortzen) edo, behin agertuz gero, suntsitu eta ordeztzen duen egintzen prozesua zehazki erakusten duten heinean. Proiektugile hitzontzi handiak hitzontziak dira, hain zuzen ere, ez dakitelako ikusten botatako “ideia handiaren” loturak errealitate zehatzarekin, ez dakitelako ezartzen jarduteko benetako prozesua. Kategoriako estadistak aldi berean sumatzen ditu ideia eta jarduteko benetako prozesua: proiektua gauzatzeko “araudiarekin” batera idazten ditu. Proiektugile hitzontziak probatuz eta berriro saiaturaz jarduten du: alegiaren “joan-etorriak” dira.”*

*Ideia handiak (1931) – Gramsci*

‘Bizantinismoari’ buruz ere idatzi zuen, hizkera herrikoiean “aingeruen sexuari buruz eztabaidatzea” bezala ezagutzen dena eta ika-mika amaiezinetara daramana, gehienetan oso astunak eta gainera mugimendu errealekin loturarik ez dutenak. Gramsci-k Bordiga-k partikularren eta unibertsalaren arteko harremana ulertzeko ezgaitasuna azpimarratu zuen hemen:

*“‘Bizantinismoa’ edo ‘eskolastikotasuna’ dei dakiokete teorikoak deituriko gaiak berez, praktika zehatz oro alde batera utzita, balioa izango balute bezala jorratzeko endekapenezko joerari. Bizantinismoaren ohiko adibide bat Erromako tesiak deiturikoak dira, zeinetan auziei metodo matematikoa ezartzen zaien, ekonomia hutsean bezala. Praktika jakin batekin bat etorritik aurkitutako egia teoriko bat garai historiko batean orokortu eta unibertsaltzat hartu ote daitezkeen planteatzen da. Bere unibertsalitatearen frogak da preseski egia hori bihurtzea: 1) egitatezko errealtatea hobeto ezagutzeko suspergarrian, aurkitu zen giroaz bestelako giro batean, eta horretan datza bere lehen ugalkortasun-maila; 2) egitatezko errealtatearen ulermen hobe hori suspertu eta lagundu ondoren, errealtate honi bere jatorrizko adierazpide gisa eranstea. Eranste honetan datza egia horren unibertsalitate zehatza, eta ez soilik haren koherentzia logiko eta formalean, edo aurkaria nahasteko tresna polemiko baliagarria izatean. Laburbilduz: ideiak ez direla beste ideia batzuetatik sortzen, filosofiek ez dituztela beste filosofia batzuk sortzen, garapen historiko errealearen adierazpen beti berrituak direla baizik, dion printzipioa beti egon behar du indarrean. Historiaren batasuna, idealistek izpirituaren batasuna deitzen dutena, ez da aurreneurri bat, baizik eta etengabeko egikaritze progresibo bat. Errealtate faktikoaren berdintasunak pentsamendu-identitatea zehazten du, eta ez alderantziz. Hortik ondorioztatzen da, gainera, egia orok, unibertsala izan arren eta formula abstraktu batean, matematika-motakoa, adierazi badaiteke ere (teorikoen triburako), bere eraginkortasuna egoera zehatz partikularren lengoaietan adieraztearen egitateari zor diola: hizkuntza partikularretan adierazi ezin bada, orduan adierazpen bizantziarra eta eskolastikoa da, gehienez ere esaldi-birmastekatzailen gozagarrirako baliagarria.”*

*Bizantinismoaren aurka (1932) – Gramsci*

Bordiga ez zen politikara bueltatu faxismoa guztiz garaituta izan arte, eta orduan batik bat Frantzian zituen jarraitzaileek sortutako “Alderdi Komunista Internazionalista” marginalean sartu zen (urte batzuen buruan zatitu eta berak are marginalagoa zen “Nazioarteko Alderdi Komunista” sortuko zuen). Han bere teorizismora eman zen eta bere dogmatismoan sakondu ahal izan zuen (marxismoa “aldaezina” eta “ez aberasgarria” zela esatera iritsi zen, egia erlatiboaren eta absolutuaren arteko harremanaren inguruko ezjakintasun latza adierazten duena), orojakile plantak eginez benetako kaikukeriak besterik esaten ez zituen bitartean, batzuetan erotasuna ere ukituz.

Bere akats politiko guztiak errepikatzen jarraitu zuen, hauek zuzentzat aurkeztuz hala teorian nola praktikan beti garaituak izan zirenean, intoxikazio lan honetan Gramsci-ren aurkako irainak behin baino gehiagotan jaurtiz. Beste erokeria batzuen artean faxismoan demokrazia burgesan baino errepresio-maila apalagoa zegoela eta benetako buruzagi komunistentzat arriskutsua ez zela (bera bezala, ala?), edo mugimendu antifaxistan (“burgesa” berez) beste alderdiekin batera ekitean

partisauek “traizioa” egin zutela esan zuen, inperialismo guztiak neurri berean faxistak eta totalitarioak omen zirelako.

ESSBn sozialismorik ez zegoela ere esaten hasi zen, “estalinismoari” buruzko ohiko purrustadetaz gain, honetan merkantzien zirkulazioak irauten zuelako eta ondorioz oraindik dirua zegoelako (ekoizpen-baliabide guztien sozializazio osora arte nahitaezkoa dena). Hau nekazal-kooperatiben existentziaren ondorio zen, haiek ekoiztako produktuak ez baitziren sektore estatalaren parte. Bordiga-ren konponbidea metodo industrialen bitartez landa-eremuan kapitalismoa garatzea zen, honetan nekazariak lan egitera behartuz Trotski “profetaren” militarizazio-metodoen bidez. Mundu osoan (Mendebaldean batez ere) proletalgoaren diktadurak agindu arte ezin zen sozialismorik egon, noski, eta ordura arte kapitalismoa sustatu behar zen, bere laguntxoarena baino mentxebismo okerragoa agertuz.

Hau justifikatzeko ‘Grundisse’-en (planta-planoak germanieraz) manipulazioan oinarritu zen, Marx-ek ‘Kapitala’ idazteko (Bordiga-k “gure Biblia” deitzen zuena) erabili zituen zirriborro hauen pasarte desitxuratuak erabiliz. Honela kapitalismotik komunismo osorako iragate-aldi historikoa ezinezko bilakatzen zuen (‘sozialismoaren eraikuntza’ egon zitekeenik ukatzen zuen, Bordiga-ren ikuspegi mistiko eta mekanizistaren klasiko bat), oso aproposa zena bere geldotasun kontrairaultzailea justifikatzeko. Hau ‘kapitalismoaren kolapsoaren’ teoriarekin, “hondamendia bitarteko eraikuntzaren” eta beste xelebrekeria zentzugabe batzuekin ontzen zuen. Benetako gorotz jangaitza.

Marx-en (eta Engels-en) manipulazio berrikustzailea ez ezik, Lenin-en inguruko gezurrak kontatzera ere dedikatu zen hau bere alde egon zela irudiarazteko, soilik Trotski-ren gezurrei parekatu daitezkeenak (edo are gehiago). Bordigismoaren kasuan, ordea, bere hitzontzikeria ultraezkertiarren atzean ildo eskuindar bat baino, ildo ultraeskuindar bat aurki daiteke: “alderdi” honek azaldu zuen III. Reich-ak egindako juduen genozidioa hauek klase burges ttipikoak zirelako izan zela (‘Autswitch edo koartada handia’ lanean), Bordiga-k beste artikulua batean (‘Vae victis, Germania’) “konponbide logiko hitleriarra” deitu zuena.

Edonola ere, esan daiteke bordigismoa bere sortzailearekin batera hil zela. Egon ziren mugimendu autonomoan hau berpizteko saiakerak halere, arrakasta gutxi izan arren... Baina beti egongo da “apostoluren” bat bere sekta partikularra (gaztetxoena bada hobe) sortzeko “mesiasaren” hitza erabiltzen jarraituko duenik, ezta?